

BEREN AMEK JASANDAKO INDARKERIAGATIK **ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEEI** BURUZKO  
IKERKETA ETA IKUSPEGI PROFESIONAL ETA INSTITUZIONALETIK HOBETZEKO PROPOSAMENAK



*Beren amek jasandako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketa eta ikuspegi profesional eta instituzionaletik hobetzeko proposamenak*

Endara Consultoría de Igualdad

Miren Oderiz Insausti

Arantxa Gómez Rodríguez

Edurne Oderiz Insausti

Noiz sortua: 2020ko irailaren 4a

Koordinazioa: Kultura eta Berdintasuneko Alorra

# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena</b>	5		
<b>2. Justifikazioa</b>	7		
<b>3. Helburuak</b>	9		
<b>4. Metodologia</b>	11		
4.1. Informazioa biltzeko tresnak	11		
4.2. Informazioa biltzeko faseak	11		
<b>5. Marko teorikoa eta normatiboa</b>	13		
5.1. Marko teorikoa	13		
5.2. Araudia	20		
<b>6. Diagnostikoa</b>	23		
6.1. Hurbilketa kuantitatiboa eta kualitatiboa	23		
6.2. Diagnostikoaren xede diren Udaleko arreta-zerbitzuen/-ekipamenduen analisia	25		
6.3. Inkesta pertsonalak	29		
6.3.1. Inkesta pertsonalen analisia	30		
6.3.2. Inkesten ondorioak	35		
6.4. Elkarrizketa pertsonalak	36		
6.4.1. Analisia eta ondorioak	37		
6.4.2. Elkarrizketak elkarte-ehunari	45		
<b>7. Laburpena ondorioak</b>	47		
7.1. Ikerketaren ondorioen laburpena	47		
7.2. Inkesta eta elkarrizketa pertsonaletan aurkeztutako proposamenak	48		
<b>8. Hobekuntza-proposamenak</b>	51		
<b>9. Ekintza plana</b>	53		
9.1. Ekintza-planaren helburua	53		
9.2. Cronograma	60		
<b>10. Beste esperientzia batzuk genero-indarkeriaren biktimak     diren adingabeekin</b>	63		
<b>11. Eranskinak</b>	69		
<b>12. Bibliografia</b>	73		



# Aurkezpena

Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorrak beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketa hau sustatu du 2020. urterako eta, horrekin batera, gaia profesionalki eta instituzionalki lantzeko hobekuntza-proposamenak ere. Horretarako, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren funtsak erabiliko dira (Berdintasun Ministeriotik eta Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzatik jasotako kredituen kontura finantzatutako jarduera). Azterlan honen helburua adingabe horien egoeraren eta haien beharren benetako ikuspegia ematea da, baita profesionalen espezializazio- eta gaikuntza-beharrena ere esku-hartze prozesuan.

Ikerketa hau analisi- eta gogoeta-lan bat da, eta prozesu parte-hartzaile baten bidez egin da. Parte-hartzaileak emakumeekin eta adingabeekin lan egiten duten gizarte-eragileak izan dira: Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikariak, Gizarte Zerbitzuetako eta Komunitate Ekintzako Alorreko baliabideetako profesionalak, Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua (EUAZ), Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileak eta irakasleak, eta hiriko elkarte-sareak.

Endara Consultoría de Igualdad-ek, Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorrak eskatuta, ikerketa-prozesu bat garatu du 2020ko abuztuan eta irailean. Helburua genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurune

adingabeen egoerari buruzko datuak ezagutu eta baloratzea zen, baita adingabeekin esku hartzen duten profesionalen espezializazio-maila eta erantzuteko duten gaitasuna zein herritarrak gai honen inguruan sentsibilizatzeko premiak ere.

Ikerketa honek genero-indarkeriaren tipologia jakin batean jartzen du arreta: bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumearen aurka egin eta haren seme-alabengan eragina duen indarkeria. Genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzen ditu adingabeak, eta arreta-zerbitzuetan eta -baliabideetan gauzatzen diren prozesuak identifikatzen ditu.

Ikerketa egiteko, hainbat profesionali eta erakunderi egin zaie kontsulta, hain zuzen ere, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko eta/edo haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko eskuduntza dutenei. Kontuan hartu da, halaber, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta haien seme-alabekin lan egiten duen hiriko elkarte-sarea.

Ikerketa-prozesuak, diagnosiaren emaitzetan oinarrituta, eta desparekotasuna genero-indarkeriaren egiturazko kausa gisa eta adingabeen interes gorena erreferentzia hartuta, hau proposatzen du: hobekuntzarako proposamen-multzo bat eta ekintza-plan bat garatzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei ematen zaien arreta hobetzen lagunduko dutenak.



# Justifikazioa

Ikerketa hau Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorraren ekimena izan da, helburu honekin: beren amen aurkako indarkeria-egoeretan murgilduta dauden haurren egoerari eta premiei buruzko informazioa biltzea eta, horrekin batera, Iruñeko udal-eremuan gaia hobekiago landu eta prebenitzeko alternatibak ezagutzea. Ikerketa egiteko beharra Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorrak, Gizarte Zerbitzuetako Alorrarekin elkarlanean, antzemandako gabezia honetatik sortu zen: datuak biltzeko eta adingabe horiekin esku-hartzeko tresnen gabezia. Eta premia honetatik ere: profesionalen prestakuntza eta gaikuntza hobetzeko eta adingabeen aurkako indarkeria-mota guztiak prebenitzeko herritarrengan sentsibilizazioa sustatzeko premia.

Azken urteotan, emakumeen aurkako indarkeria agerian jarria izan da mugimendu feministen lanari eta borrokari esker zein nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiei esker. Pixkanaka, indarkeriaren biktima diren emakumeek behar duten arreta hobetzeko neurriak jarri dira abian. Emakume horien seme-alabak genero-indarkeriaren biktima zuzen gisa sartzeari, ordea, askoz motelago doa, eta oraindik ez dira moldatu adingabe horien guztien premiei erantzuna eman ahal izateko arreta-prozesuak.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak agintzen duenez, emakumearen aurkako

*indarkeria-egoerek eragina dute, berebat, euren familia-ingurunean dauden adingabekoengan, indarkeria horren zuzeneko nahiz zeharkako biktima direlako, eta legeak adingabeko horiek ere babesten ditu, euren eskubideak babesteaz gain, emakumeari begira hartutako babes-neurriak eragingarritasunez bermatzeko.*

Beren amen aurkako indarkeria jasaten duten adingabeak genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatzat hartzen dira 2015etik, hau da, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, indarren sartu zenetik; beste batzuen artean, 1/2004 Lege Organikoa aldatzen du.

14/2015 Foru Legeak ere, emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoak, barne hartzen du indarkeria horrek indarkeria-ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen egindako indarkeriaz hitz egiten duenean.

Legeak agintzen duenez, *Emakumeen kontrako indarkeria egoerak jasan dituzten emakume guztien gizarte arretarako eskubidea bermatzeko, Gizarte Zerbitzuek detekzio eta arreta sozialerako estrategia bat egingen du emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan, honakoak barne hartuta: emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzio, detekzio eta arretarako behar diren giza baliabide eta bitarteko materialak; emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prestakuntzarako programazio bat, biktima diren emakumeei arreta ematen dieten gizarte zerbitzuen arloko*

*profesionalentzat; eta jarduketa eta koordinaziorako protokoloak egitea. Halaber, emakumeen kontrako indarkeria kasuen erregistroko sistema bat ezarriko du.*

Bai Lege Organikoak, baita Foru Legeak ere, gainera, hainbat eremutan sentsibilizazio-neurriak abian jartzeko beharra ezartzen dute, hainbat ekintza-mota-rekin: biztanleentzako komunikazio-kanpainez eta informazio-ekintzez gain, hezkuntza-arlotik eta/edo profesional desberdinei eskainitako formazioa.

Kontuan hartzen badugu 8/2015 Lege Organikoa indarrean sartu zenetik beren amen aurkako indarkeria jasaten duten adingabeak genero-indarkeriaren zuzeneko biktimatza hartzen direla, emakumeei aplikatzeko neurri horiek indarkeria horren biktima diren adingabeei ere aplikatu beharko litzaizkieke.

2017 ko abenduan, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna onetsi zen, Parlamentu Taldeek, Autonomia Erkidegoek eta Toki Erakundeek (Udalerriak eta Probintzien Espainiako Federazioan ordezkatuta) berretsita. Itunak Toki Administrazioak emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan duen funtsezko eginkizuna aitortzen du. Itunak Toki Administrazioak emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan duen funtsezko eginkizuna aitortzen du.

Estatu Itun horren 9 Ardatzak, konpromiso ekonomikoren ingurukoak, zehazten duenez, *Estatuko Aurrekontu Orokorrek, udalei transferentziak eginez, 20 milioi euroko urteko igoera bideratuko dute hurrengo bost ekitaldietan. (...)*

*Funtsak genero-indarkeriaren aurkako programetara zuzenduko dira.*

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak egindako Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko Makroinkestaren datuen arabera, ia bi milioi haur

bizi dira emakumea nolabaiteko genero-indarkeria jasaten ari den etxeetan: indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa. 37 adingabe beren aitak edo amaren bikotekideak edo bikotekide ohiak erailak izan dira 2013tik 2020ko ekainaren 15a arte, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren datuen arabera.

Haurrak eta Nerabeak Indarkeriaren aurrean Osorik Babesteko Lege Organikoaren proiektuak, 2020ko ekainaren 19an BOEn argitaratuak, hauxe zehazten du, esku-hartzeko taldeei dagokienez, gizarte zerbitzuen eremuko VII. kapituluko 40.2 artikuluan: Adingabeen aurkako indarkeriaren arloan lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako esku-hartzeko taldeek, gehienbat, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria-kasuetan espezializatutako gizarte-hezkuntzako, psikologiako eta gizarte-laneko profesionalak eratu egon beharko dute.

Lege-proiektu horrek berak, esku-hartzeko planei buruz, 41.3 artikuluan agintzen duenez, *Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuei dagokie balizko indarkeria-kasuei buruzko informazioa biltzea eta kasuan kasuko profesionalen parte-hartzearekin kasuaren diziplinarteko azterketa zehaztea, eta, beharrezkoa den guztietan, haurrak babesteko erakunde publikoaren laguntza edo esku-hartzea, baita, hala badagokio, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei autonomia-erkidegoko arreta emateko zerbitzuena.*

Diagnosi-azterketa hau funtsezkoa da adingabeei arreta emateko zerbitzuen eta baliabideen beharrak hautemateko, genero-indarkeriaren biktima gisa duten errealitatera egokitzeko. Era berean, ikerketa hau herritarrek eta adingabeekin esku hartzen duten profesionalak sentsibilizatzeko modu bat da.



# Helburuak

Helburu orokorrak	Helburu espezifikoak	Ekintzak
<p>Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurune-ko adingabeen egoerari buruzko informazio erabilgarriaren eta datuen irisgarritasuna identifikatzea eta, horrekin batera, politika publikoak zehazteko behar diren datuak eta informazioa erabiltzea posible egingo duten neurri zuzentzaileak proposatzea.</p>	<p>Lehendikako datuen bilketa- tresnen eta -tekniken inguruko informazioa biltzea onartuko duen diagnosi bat egitea, eta informazio hori erabiltzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galdetegi pertsonalak.</li> <li>• Elkarrizketak pertsona eta erakunde nagusiei.</li> <li>• Lehendikako informazioaren egungo erabilera-analisia.</li> </ul>
<p>Profesionalen espezializazio-maila eta erantzun instituzionalera-ko gaitasuna identifikatzea, beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz beren familia-ingurunean arrisku-egoeran dauden adingabeekin esku hartzeko eta arriskua hautemateko, eta profesionalen prestakuntza eta detektatzeko eta esku hartzeko gaitasuna hobetzeko neurriak proposatzea.</p>	<p>Pertsona profesionalen uneko espezializazio-maila biltzen duen ikerketa-prozesu bat garatzea, arriskuan dauden adingabeen detekzioan eta esku-hartzean erakundeek duten erantzun-gaitasuna identifikatzeko..</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Benetako espezializazio-mailen eta formakuntza-beharren analisia.</li> <li>• Kontaktua entitate nagusiekin.</li> <li>• Ekintza-plana: 1, 2 eta 3 helburuak.</li> </ul>
<p>Herritarrak sentsibilizatzeko beharrak identifikatzea eta estra-tegiak definitzea, adingabeek jasaten dituzten indarkeria-mota guztiak ezagutu eta prebenitu ahal izateko.</p>	<p>Ikerketa-prozesu bat garatzea, uneko errealitatea eta herritarrak gai honen inguruan sentsibilizatzeko premiak ezagutzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Galdetegiak Elkarrizketak pertsona eta erakunde nagusiei.</li> <li>• Ekintza-plana: 4 helburua.</li> <li>• Kontaktua entitate nagusiekin eta elkarte-ehunarekin.</li> </ul>



# Metodologia

## 4.1. INFORMAZIOA BILTZEKO TRESNAK

Diagnosia lantzeko, metodologia misto bat erabili da. Alde batetik, informazio kuantitatiboa eskuratzeko teknikak, lehendik bildutako datuak hainbat iturritatik jasoak izan direlarik; beste aldetik, informazio kualitatiboa eskuratzeko teknikak: udal-zerbitzu desberdinetatik genero-indarkeria jasaten duten emakumeei eta adingabeei arreta ematen dien pertsonal teknikoaren iritziak eta ekarpenak eta, horrez gain, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta beren seme-alabekin zuzenean lan egiten duten elkarte feministen esperientziak.

Ikerketaren elaboratze-prozesuan erabili den informazioa iturri desberdinetatik eskuratu da, hala nola bildutako informazioaren eta lehendikako datuen azterketatik, galdetegi eta elkarrizketa pertsonaletatik eta gaiaren inguruko ikerketetatik.

### Datu kuantitatiboak

- Lehendikako datuen bilketa-tresnak eta -teknikak biltzea eta analizatzea.
- Adingabeekin esku hartzen duten udal-egituren konfigurazioaren gaineko datuak biltzea eta analizatzea.
- Profesionalen prestakuntza-mailen inguruko datuak biltzea eta analizatzea.
- Unean Iruñeko Udalaren menpe dauden entitateek eskaintzen dituzten formakuntza espezifikoen datuak biltzea eta analizatzea.

- Herritarrak adingabeen aurkako genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzeko kanpainen bilketa eta analisisa. Kanpaina horiek Iruñeko Udaleko alorrek eta/edo horien menpeko entitateek egin dituzte.

### Datu kualitatiboak

- Galdetegi pertsonalak.
- Elkarrizketak pertsona eta erakunde nagusiei.
- Lehendikako informazioaren egungo erabilera-analisisa.
- Benetako espezializazio-mailen eta formakuntza-beharren analisisa.
- Dokumentazio-berrikuspena:
  - Marko kontzeptuala: genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen inguruko ikerketak eta berdintasunaren eta genero-indarkeriaren inguruko dokumentazioa.
  - Marko normatiboa.

## 4.2. INFORMAZIOA BILTZEKO FASEAK

Profesionalen esperientzia bera abiapuntu, lan-teknikak partizipatiboak izan dira:

### 1 fasea. Prozesua abian jartzea

2020ko uztailean, bilera bat egin zen Iruñeko Udaleko Berdintasuneko teknikariarekin. Bileran, hainbat gauza zehaztu ziren: informazioa biltzeko tresnak, aztertu beharreko departamentu eta/edo baliabideak eta elkarrizketatu beharreko pertsonen hautaketa eta kontaktuak. Ondoren, lan bera egin zen Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Alorreko Haur eta Familientzako Programaren arduradunarekin.

Ikerketa-prozesuak iraun bitartean, etengabeko harremana mantendu izan da bi arduradunekin.

### 2 fasea. Profesionalei egindako inkestak

2020ko abuztuan zehar, inkesta pertsonalak bidali zitzaizkien adingabeekin esku hartzen duten zerbitzuetako/taldeetako 40 profesionali. Txostena 6.3. epigrafean aurkeztu dugu. Inkesta pertsonalak

### 3 fasea. Elkarrizketa pertsonalak

2020ko abuztuan, 13 elkarrizketa pertsonal egin zitzaizkien adingabeekin esku hartzen duten profesionali, berdintasuneko teknikariari, ikertzaile-taldeei eta hiriko elkarte-ehunari. Txostena 6.4 epigrafean aurkeztu dugu. Elkarrizketa pertsonalak eta 6.5. Elkarrizketak elkarte-ehunari.

### 4 fasea. Dokumentazio-berrikuspena

Iturri desberdinetatik abiatuta, intereseko informazioa bildu zen, hala nola web-orrialdeetatik eta Iruñeko Udaleko ikerketa eta/edo txostenetatik, hainbat udal-departamentutatik eta genero-indarkeriaren inguruan aritzen diren Estatuko eta Foru Komunitateko beste entitate batzuetatik.

### 5 fasea. Informazioaren analisisa eta ikerketa idaztea eta entregatzea.

Diagnosia Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Alorreko Haur eta Familientzako Programa du ardatz, eta Udal bereko Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzua (EUAZ).

Ikerketa-eremuaren errepresentatzaile diren behar adina profesional hartu ziren barne laginean. Lagina Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorreko eta Haur eta Familientzako Programako arduradunek hautatu zuten.

Inkestak haurtzaroaren eta Familiaren arloko eta Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuko (EUAZ) 40 profesionali bidali zitzaizkien; 16 inkesta bete ziren. Gainera, elkarrizketa pertsonalak egin zitzaizkien talde hauetako langile nagusiei. Aldez aurretik harremanetan jarri ziren beraiekin, posta elektronikoki bidez eta telefono bidez, ikerketaren inguruko informazioa emateko.

Agente parte-hartzailea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Kultura eta Berdintasuneko Alorreko teknikariak	1	0	1
Gizarte Zerbitzuetako Alorreko arduradunak	1	1	2
Haur eta Familientzako taldeetako teknikariak	15	2	17
Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuko teknikariak (EUAZ)	1	1	2
Emakumeendako Udal Arreta Zerbitzuko administrazioariak (EUAZ)	1	0	1
NUPeko ikertzaileak	1	0	1
Elkarte-ehuneko pertsonak	1	0	1

Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Berdintasuneko teknikariak	1	0	1
Gizarte-langileak	7	0	7
Gizarteratzeko teknikariak	7	2	9
Psikologiako profesionalak	2	0	2
Abokatuak	1	0	1
Irakasle eta ikertzaileak	1	0	1
Administrazioko langileak	1	0	1

# Marko teorikoa eta normatiboa

## 5.1. MARKO TEORIKOA

### Genero-indarkeria

Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpenaren 1. artikuluan (Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 1993ko abenduaren 20ko 48/104 ebazpena, Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia, Viena), honela definitzen da genero-indarkeria: "Emakumeengan oinarritutako edozein indarkeria egin-tza, emaitza moduan, emakumearentzat kalte edo sufrimendu fisikoa, psikologikoa edo sexuala duena edo izan dezakeena, eta baita, egin-tza horien mehatxuak, derrigortzea edo nahierara askatasunaz gabetzea, bizitza publikoan zein pribatuan".

Adierazpen horren hitzaurrean honela ezartzen da emakumeen aurkako indarkeria: "sexuen arteko botere desberdintasunaren adierazpena, eta sistema patriarkal batean oinarritzen da desberdintasun hori, zeinetan indarra erabiltzen den gizarte-mekanismo gisa emakumea kontrolatzeko eta mendea edukitzeko".

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, hau da genero-indarkeria: *ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen*

*gisa azaltzen den indarkeria. Lege honek aipatu genero-indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egin-tza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurka-ko erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere.*

Legearen arabera, emakumearen aurkako indarkeria-egoerek eragina dute, berebat, euren familia-ingurunean dauden adingabekoengan, indarkeria horren zuzeneko nahiz zeharkako biktima direlako. Legeak adingabeko horiek ere babestu ditu, euren eskubideak babesteaz gain, emakumeari begira hartutako babes-neurriak eragingarritasunez bermatzeko.

Ilido horretatik, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, 2015eko abuztuaren 12an indarrean sartu zenak, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa moldatu zuen; lege berriak 1. artikuluan jaso zuen biktima diren emakumeen seme-alabak genero-indarkeriaren eraginpeko biktima zuzenak direla. Hau da, lege hori indarrean sartu zenetik, adingabe-koak genero-indarkeriaren biktimatzat aitortu zituzten.

Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak zera dio: *emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa,*

*psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima kontzeptuaren barruan sartzen dira adingabeko neskek.*

Estatuko 1/2004 legeak, aldiz, emakumearen kontrako genero-indarkeriatzat hartzen du bere bikoteak edo bikote ohiak egindakoa, eta 14/2015 Foru Legean, halaber, beste hauek ere hartzen dira emakumearen aurkako indarkeriatzat:

- Indarkeria bikotean edo bikote ohian: indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak dituen edo izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.
- Sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak: emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu-erasoa, sexu-abusua, sexu-jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu-abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.
- Feminizidioa: bikotearengan edo bikote ohiarengan eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, oho-reagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.
- Sexu-esplotazioa: emakumeak eta neskek prostituzioan, sexu-morrontzan edo beste sexu-zerbitzu batzuetan aritzetik, ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne, finantza-onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuaz, engainuaz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.
- Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua: baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupean edo bortxaz egin delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.
- Emakumeen genitalen mutilazioa: emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten

dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.

- Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko araudian aurreikusirik dagoena.

Emakumeen aurkako indarkeria, bere mota guztietan, emakumeen duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da, eta, ondorioz, giza eskubideen urraketa nabarmen eta onartezina da. Desberdintasunaren beste adierazpen bat izateaz gain, agian larriena, desberdintasun horrek jarraitzeko eta betikotzen joateko gizarte-kontrolerako tresna nagusia ere bada. Patriarkatuaren arma nagusia da; emakumeen kontra egiten da, emakumeak direlako beste arrazoirik gabe, eta kontrola da haren oinarritzko helburua.

### Genero-indarkeriaren biktima diren haurrak

Nazio Batuek honela definitzen dute haurren kontrako indarkeria: “indarra edo bosterea nahita erabiltzea, modu errealean edo mehatxu moduan, eta ondorio hauek izatea edo eduki ahal izatea: lesioak, kalte psikologikoa, garapen eskasa, gabeziak bai eta heriotza ere”.

Era berean, Haurren eskubideei buruzko konbentzioan ezarritakoaren arabera (Nazio Batuen nazioarteko akordioa, 1989ko azaroaren 20ko Batzar Nagusia), honela definitzen dira haurren kontrako tratu txarrak: “haurrari bere eskubideak eta ongizatea galarazten dizkion eta haurraren garapen fisiko, psikiko eta/edo soziala arriskuan jartzen duen edozein ekintza, omisio edo zabarkeriazko tratu, halabeharrezkoa ez dena, zeinaren egileak pertsonak, erakundeak edo gizartea bera izan baitaitezke”.

Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoan jasotzen den bezala (1/2004 Lege Organikoa aldatzen du), biktima diren emakumeen haurrak ere genero-indarkeriaren biktima zuzenak dira.

Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak eragin negatiboak ditu haurtzaroon: arazo fisikoak eta alterazioak, emozionalak, kognitiboak edo jokabidekoak. Beraz, genero-indarkeriaren biktimak artatzean espezializatuta dauden zerbitzuek genero-indarkeriak haurrengan eragiten dituen ondorioak kontuan hartuz lan egin behar dute.

Haurrak babesteko prozeduraren Nafarroako II. eskuliburuaren arabera (Nafarroako Gobernuak 2019), 10 tipologia daude haurren aurkako tratu txar eta abandonuei dagokienez:

### 1. Tratu txar fisikoa:

- Tratu txar fisikoa: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileek nahita egindako erasoen ondorioz haurrak edo nerabeak kalte fisikoa jasan du edo jasateko arriskuan dago.
- Janaria edo ura apropos kentzea: Aitak, amak edo tutoreak nahiz zaintzaileak apropos edo nahita ez dio janaria edo ura eman haurrari edo nerabeari egun batez gutxienez (denbora gutxiagoz haur txikien kasuan), edo janari-kantitate oso txikia eta/edo nutrizioaren aldetik janari desegokia eman dio egun batzuek. Horrek osasunean eta/edo garapenean eragin du edo eragin dezake.
- Konfinamendua edo murrizketa fisikoa: Aitak, amak edo tutoreak nahiz zaintzaileak apropos edo nahita konfinatu du adingabea, edo haren mugimendu fisikoa murriztu du. Horrek kalte fisiko edo psikikoa eragin du edo eragiteko arriskuan dago.

### 2. Zabarkeria:

Behar fisikoekiko zabarkeria:

- Elikadura: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak elikadura ezegokia ematen dio adingabeari, eta horrek ondorioak ditu haren osasunean eta/edo garapenean.
- Osasun fisikoaren zaintza: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak adingabearen higie-, osasun- eta atsedeen-beharrei era ezegokian erantzuten die, eta horrek ondorioak ditu edo izan ditzake haren osasunean edo garapen fisikoan eta errendimenduan.
- Jantziak: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez dio adingabeari behar adina jantzi ematen, egoera onean daudenak edo baldintza atmosferikoetara egokitzen direnak, eta horrek osasunean edo eguneroko jardueretan parte hartzean eragiten du edo eragina izan dezake.
- Higie pertsonala: Aitak, amak, edo tutore nahiz zaintzaileak ez ditu adingabearen higie pertsonalaren ohiturak behar bezala zaintzen, eta egoera

horrek berdinekiko eta beste pertsona batzuekiko harremanean eragiten du edo eragin dezake.

- Etxebizitzaren higie-baldintzak: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez du etxebizitza familiarraren higie behar bezala zaintzen, eta horrek adingabearen osasunean edo garapen fisikoan eragiten du edo eragin dezake.
- Etxebizitzaren egonkortasun-eta bizigarritasun-baldintzak: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez dio adingabeari etxebizitza egonkor bat ematen, behar bezala hornitua dagoena eta haren intimitatea gordetzeko espazio nahikoa duena.

Segurtasun-beharrekiko zabarkeria

- Etxebizitzaren segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez dio adingabeari arriskurik gabeko etxebizitza bat ematen eta/edo portaera ausartegiak ditu. Horrek kalte larria eragin dio edo eragin diezaioke adingabeari.
- Artatzea: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez du adingabea behar bezala artatzen, etxean zein etxetik kanpo, edo horretarako gaituta ez dagoen pertsona baten ardurapean utzi du. Horrek adingabearen bizia arriskuan jarri du edo jar dezake.
- Beste pertsona batzuek eragindako babesgabetasun larriko egoeren aurkako babesa: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez du adingabea hirugarren pertsonen tratu txarretatik edo erasoetatik behar beste babestu.

Hezkuntza-beharrekiko zabarkeria:

- Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez du adingabea eskolara joatera bultzatzen eta/edo ez ditu beharrezko neurriak hartzen hezkuntza-esparruko arazoak konpontzeko. Horren ondorioz, adingabeak arazoak ditu hezkuntza-esparruan.

Behar psikikoekiko zabarkeria:

- Interakzioa eta afektua: Aitak, amak edo tutoreak nahiz zaintzaileak ez die jaramonik egiten edo ez dago adingabearen interakzio-beharrei erantzuteko, eta adingabeak kalte psikikoa jasaten du edo jasateko arriskuan dago.
- Estimulazioa: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ez dizkio adingabeari, eskolatik kanpo, esperientzia aberasgarriak edo hezigarriak ematen, eta, ondorioz, adingabeak kalte psikikoa jasaten du edo jasateko arriskuan dago.

- Arazo emozional larrietarako arreta espezifikoak: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak ezikusia egiten dio edo atzerapenarekin ekiten dio arazo emozional larrietarako tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa bilatzeari.
- Arauak, mugak eta balio moral positiboen transmisioa: Aita, ama edo tutore nahiz zaintzailea ezikusia egiten dio edo asko kostatzen zaio arauak edo mugak jartzea, eta horrek adingabearen jokaeran edo egokitzapen sozialean arazoak sortzen ditu edo sor ditzake.

### 3. Sexu-abusua:

Aitaren, amaren, tutore nahiz zaintzailearen edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten senideen eta haur edo nerabearen arteko kontaktua edo interakzioa, non pertsona helduak haurra edo nerabea erabiltzen duen sexu-ekintzak egiteko eta / edo sexu-estimulazioa lortzeko.

### 4. Sexu-esplotazioa:

Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak adingabeak prostituzioan, ikuskizun exhibizionista edo pornografikoetan edo material pornografikoa egiteko erabiltzen, sustatzen, baimentzen edo bultzatzen ditu. Sexu-jarduera horiek adingabearen eta beste pertsona baten arteko kontaktu fisikoa izan dezakete edo ez.

### 5. Tratu txar psikikoa:

- Tratu txar emozionala: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak kalte psikikoa eragiten ari diren edo eragin dezaketen jokaerak ditu (baztertzeta, isolatzea, gehiegi eskatzea eta abar).
- Haur edo nerabea erabiltzea guraso-figuren arteko gatazketan zein guraso-figuren eta haur edo nerabearentzat esanguratsuak diren eta bizikidetzaren nukleoko parte diren beste senide batzuen arteko gatazketan. Guraso-figurretako batek adingabea erabiltzen du beste guraso-figurari edo esanguratsua den beste senide bati kaltea eragiteko. Horrek kalte psikikoa edo leialtasun-gatazka eragin dio adingabeari eta/edo ezarritako loturari eragin dio edo eragin diezaiolke.
- Genero-indarkeriako edo familia-indarkeriako egoeren eraginpean egotea. Adingabea bizi den familiarteko testuinguruan indarkeria-egoera fisikoak eta

hitzeko indarkeria-egoerak gertatzen dira kideen artean. Horrek kalte psikikoa eragin dio edo eragin diezaiolke adingabeari.

### 6. Abandonua:

- Abandonua: Aitak, amak edo adingabea zaintzeaz arduratzen diren pertsonak bakarrik utzi dute, itzultzeko asmorik gabe. Hirugarren pertsonen ardurapean uzten dute erabat eta/edo askotan aldatu da zaintzaile-figura ustekabez. Egoerak alterazio emozionalak eragin dizkio adingabeari.
- Etxetik bidaltzea edo etxean sartzen ez uztea: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak etxetik bidali du edo etxean sartzea ukatu dio adingabeari, eta horren ondorioz arriskuan jarri du.

### 7. Gurasoen gaitasunik eza hauraren edo nerabearen portaera kontrolatzeko:

Aitak, amak edo biek ez dute seme-alaben portaera modu egokitzailan kontrolatu eta maneiatzeko erantzukizuna gain hartzen, edo modu desegoki eta kaltegarrian jokatzeko saiatzen dira.

### 8. Korrupzioa:

Helduek bultzatutako jokabideak, jokabide antisozial edo desbideratuak indartzen dituztenak eta haur edo nerabearen integrazio normala eragozten dutenak, bereziki oldarkortasunaren, sexualitatearen eta drogen arloan. Hiru mota zehatzetan banatzen dira.

- Delinkuentzia eragitea.
- Bizimodu desegokia.
- Beste pertsona batzuen indarkeria edo menpekotasuna eragitea.

### 9. Beste patologia batzuk:

- Jaio aurreko tratu txarra: Haurdunaldian droga edo alkohol gehiegi hartzea, edo jaioberriak gaixotasun edo anomalia fisiko, mental edo sentzorial larriak edo substantzia horien edo beste alterazio batzuen mendekotasun fisikoko sintomekin jaiotzea eragiten duen edo eragin dezakeen amaren edozein bizi-egoera.



Tratu txar mota hori aitari edo haurdunaren lagunari ere aplika dakioke, maila fisikoan eragina duten tratu txarrak egiten baditu edo haren beharrei erantzuten ez badie.

- Eskekotasuna: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak eskean ibiltzen dira adingabearekin, eta horren ondorioz adingabea ez da eskolara joaten eta/edo gizarte-jarduerak oztopatzen ditu.
- Lan-esplotazioa: Aitak, amak edo tutore nahiz zaintzaileak etengabe eskatzen diote pertsona helduek egin behar lituzketen lan ordainduak eta adingabearen gizarte- eta/edo eskola-arloko jarduerak eta beharrak oztopatzen dituzten lanak egiteko.
- Ahal ordeko Munchausen sindromea: Aitak, amak edo biek umea behin eta berriz medikuarengana eramaten dute edo miaketa medikoak egiten dizkiote, umeak gezurrezko edo aitak edo amak era aktiboan eragindako sintoma fisiko-patologikoak dituela argudiatuz (adibidez, haurri substantziak harrazten dizkiote).

### 10. Babesgabetasun larria edo desanparoa ekar lezaketen beste egoera espeziфикo batzuk:

Babesgabetasuna pairatzen duten haurrek arazo larriak dituzte haien garapen ebolutiboan, eta eskasia emozionalak, portaerazkoak eta soziokognitiboak dituzte, beren nortasuna behar bezala garatzea galarazten dutenak. Horregatik, oso garrantzitsua da babesgabetasuna ahalik eta lasterrena detektatzea eta erantzun egokia bilatzea.

Haur horiek dituzten arazoak portaerazkoak, fisikoak eta/edo emozionalak izan daitezke. Batzuetan haur edo nerabe alferra, lanik egiten ez duena, oldarkorra, molestatzen duena dela pentsatuko dugu, eta galdutzat joko dugu. Baina jarrera horiek bere bizitzan zerbait gaizki dagoenaren alarma-seinale gisa interpretatu behar ditugu, ez izaera aldaezin gisa. Alarma-seinale edo arreata-pilotu horiei adierazle deitzen diegu, arriskuko edo babesik gabeko egoera bat "adieraz" baitezakete.

Jarraian, gure behaketan lagundu ahal diguten adierazle batzuk azalduko ditugu.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu adierazle horiek berez ez direla nahikoak babesgabetasun-egoera bat dagoela demostratzeko, beste aldagai batzuk ere hartu behar ditugulako kontuan, hala nola adierazpen horien maiztasuna eta nola,

non eta norekin gertatzen diren. Dena den, gogoan izan behar dugu adierazle bat baino gehiago hautemanda ere ez dela zertan babesgabetasun-egoera bat izan, balitekeelako beste arazo baten seinale izatea.

M<sup>a</sup> Angeles Espinosa Bayalen *Las hijas e hijos de mujeres maltratadas: consecuencias para su desarrollo e integración escolar* ikerketan, genero-indarkeriaren eraginpean zuzenean edo zeharka egon izanaren ondorio komun batzuk nabarmentzen dira.

#### Genero-indarkeriaren eraginpean zuzenean egotea:

Adingabeek amak jasaten dituen ekintza bortitz berdinak jasaten dituzte: irainak, mehatxuak, umilazioak, balio-kentzea, manipulazio emozionala, larderia, tratu txar fisiko aktiboak (zartakoak, ostikoak, jipoiak, bultzadak, ile-tiratzeak, atximurrak...).

Ondorio nagusiak

- Ondorio fisikoak (lesioak kanpo): hazkuntza atzeratzea, alterazio neuropsikologikoak, loaren eta elikaduraren alterazioak, garapen-motorra atzeratzea etab.
- Alterazio emozionalak: haur eta gazteen depresioa, antsietatea, autoestimua baxua, estres postraumatikoaren alterazioa...
- Arazo kognitiboak: hizkuntza atzerapena, eskola absentismoa, eskola-porrota, arreata eta kontzentrazio defizitak, eskola integrazioarako zailtasunak.
- Portaera arazoak: gizarte-trebetasunik eza, oldarkortasuna, heldutasunik eza, delinkuentzia, toxikomaniak etab.

#### Genero-indarkeriaren eraginpean zeharka egotea:

Erasoa haren aurrean egiten bada eta, baita, hura aurrean egon ez arren, gurasoengandik urrundu ezin bada, amak dituen sekuelak nabariak direlako. Liskarrak, kolpeak entzuten ditu, eta izua eta etsipena sumatzen ditu.

Ondorio nagusiak

- Biktimek (amek) ezin diete haurren oinarrizko beharrei erantzun, daukaten egoera fisiko eta emozionala dela eta; haurrak zabarkeria- eta abandonu-egoeran egotea eragin dezake horrek.
- Erasotzaileek ezin dute harreman bero, txeratsu eta hurbilekoa izan seme-alabekin. Horrek afektibitate-lotura eta atxikimendu-harremanak ezartzeko arazoak sor ditzake.

Hainbat ikerketa kontuan hartuta, hauek dira indarkeriak haurrengan eragiten dituen ondorio nagusiak:

- Sozializatzeko arazoak.
  - Isolamendua.
  - Ziurtasun-gabezia.
  - Oldarkortasuna.
  - Konpetentzia sozialak murriztea.
- Arazo kognitiboak.
  - Negarra.
  - Tristura.
  - Autoestimu baxua.
  - Isolamendua.
- Beldurrak.
  - Beldur zehaztugabeak.
  - Zerbait txarra gertatuko zaionaren susmoa.
  - Heriotzari beldurra.
  - Ama galtzeari beldurra.
  - Aita galtzeari beldurra.
  - Abandonuari/gaitzespenari beldurra.
- Loaren alterazioak.
  - Amesgaiztoak.
  - Bakarrik lo egiteari beldurra.
  - Lotako terroreak.
- Sintoma erregresiboak.
  - Enuresia.
  - Enkopresia.
  - Atzerapena hizkuntzaren garapenean.
  - Haiek baino gazteagoak diren haurren modura jokatzeko.

- Eskolan integratzeko arazoak.
  - Ikasteko arazoak.
  - Kontzentratzeko eta arreta jartzeko zailtasunak.
  - Eskola-errendimendua jaitea.
  - Beste haurrekin gauzak partekatzeko zailtasunak.
- Erantzun emozionalak eta portaerazkoak.
  - Amorrua.
  - Bat-bateko umore-aldaketak.
  - Antsietatea.
  - Babesgabetasun-sentsazioa eta mundua mehatxu gisa sentitzea.
  - Erru-sentimendua (gurasoen arteko liskarren erantzule izatea edo indarkeria ekiditeko ezer egin ez izana).
  - Sentimenduak azaltzeko eta kudeatzeko zailtasunak.
  - Indarkeria-egoera ukatzea edo bizitako egoerari garrantzia kentzea.
  - Sufrimendua eta eraso harremanak izateko era natural gisa hartzea.
  - Indarkeria-ereduak ikastea eta errepikatu ahal izatea, okerreko genero-rolak barneratu dituelako.
  - Harreman gatazkatsuak eta menpekotasunak, gurasoen liskarren eraginpean kronikoki egoteagatik.
  - Etxetik ihes egitea.
  - Harreman sentimental goiztiarrak izatea, maitasun erromantikoaren mitorio oinarritutako harreman-ereduak ikasi dituelako.
  - Pertzepziozko distorsioak eta besteen portaeraren aurreko suszeptibilitatea, kontrako asmoak hautematen dituztelako haiengan, eta indarkeriaz erantzuteko joera defentsa-mekanismo gisa.
- Trauma-osteko estresaren sintomak.
  - Insomnioa.
  - Amesgaizto errepikakorak.
  - Fobiak.
  - Antsietate-krisiak.
  - Trauma berriro esperimentatzea.
  - Disoziaziozko nahasmenduak.

- Hurrek guraso-rola hartzea.
  - Guraso-rola hartzea neba-arreba gazteagoekin.
  - Guraso-rola hartzea amarekin.
- Heriotza (kasu batzuetan).

Genero-indarkeriaren eraginpean egoteak ondorio negatibo nabaria du haurren bizitzan, ongizatean eta garapenean. Biktimatzat hartzeko, ez da beharrezkoa indarkeria zuzenean jasatea.

Amaren kontrako indarkeriaren lekuko izateak edo gizon eta emakumearen arteko desberdintasuna indarkeriaren bidez azaltzen den inguru batean hezteak ere biktima bihurtzen ditu. Halaber, botere-harreman desorekatu, diskriminatzaile eta bortizetan oinarritutako jokaera-ereduak ikasi eta errepikatzeko arrisku-faktorea da.

Beraz, familia barruko genero-indarkeriako egoerei behar bezala ekiteko, kontuan hartu behar da indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubideak urratzen ari direla, baina baita seme-alaben eskubideak ere, indarkeria horren eraginpean hazten ari direnez, indarkeriaren biktima ere bihurtzen direlako.

### Genero-indarkeriaren biktima diren haurren eskubideak

Nazio Batuen haurraren eskubideei buruzko konbentzioa, ia nazioarteko komunitate osoak berretsitako arau-erreferentzia nagusia, mundu osoan onartuta dagoen haurren eskubideen katalogoa da, eta estatuek eskubide horiek errespetatzeko, bermatzeko eta benetako bihurtzeko betebeharra ezartzen du.

Konbentzioak lau funtsezko printzipio ezartzen ditu, haurren alorreko ekintza instituzional guztiak bideratu behar dituztenak.

- Diskriminaziorik ezeko printzipioa (2. art) Haur guztiek beren eskubideak gauzatzeko eta bermatuak izateko aukera izan behar dute inolako diskriminaziorik jasan gabe. Horrek esan nahi du ezin direla diskriminatu ez legeetan ez politika publikoak diseinatu eta inplementatzerakoan, eta, halaber, adierazten du zuzenean lagundu behar zaiela haien eskubideak urratzen direnean.
- Interes gorena (3. art) Genero-indarkeriaren egoerak direla eta, agintaritzaren administratibo eta judizialek esku hartu behar izaten dute. Horien jardunak haur bakoitzaren interes gorena zein den identifikatzen jarri behar du arreta, eta interes gorenaren arabera jarduteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte.

- Partaidetza-printzipioa (adingabeek entzunak izateko duten eskubidea. 12. art). Genero-indarkeriaren ohiko ondorioetako bat prozedura administratiboak eta judizialak abian jartzea izaten da, biktima babesteko neurri egokiak ezartzeko. Indarkeria horren biktima diren adingabeak dauden heinean, agintaritzek neurriak hartu behar dituzte ahal den guztietan haur horiek esateko dutena entzun dadin eta haien iritzia kontuan har dadin, haur bakoitzaren interes gorena zein den erabakitzeko. Estatuak duten betebeharrak hau beteitzeko, ezinbestekoa da gailuak eta prozedura judizialak haurren beharretara egokitzea, haien heldutasuna eta egoera bereziak beti kontuan hartuz.
- Bizitzeko, bizirik irauteko eta garatzeko eskubidea (6. art). Kontuan hartuz genero-indarkeriak haurren garapen osoan eragiten duela, administrazioek ahal duten guztia egin behako lukete egoera hori bizi izan duten haurrak babesteko, eta arreta berezia eskaini beharko die; horretarako, haurrak osatzen lagunduko duten neurri positiboak bultzatu beharko dituzte eta, aldi berean, saiatu beharko dira biktima bihurtu dituen indarkeriagatik ez estigmatizatzen.

“Haurren eskubideei buruzko konbentzioak” kategoria hauetan banatzen ditu eskubideak:

- Bizirik irautea: bizirako eskubidea babestu eta bermatzen du, eta oinarritzko beharrak asetzen ditu (elikadura, jantziak eta osasunaren zainketa).
- Garapena: hainbat alorretan (fisikoa, espiritual, morala eta soziala) guztiz garatzea bermatu nahi du, baita hezkuntza, kultura, jolasak eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna izatea ere.
- Babesa: abusu, zabarkeria edo esplotazioaren biktimak ez izatea, eta identitatea, herritartasuna eta zainketa izateko eskubidea izatea.
- Parte-hartzea: adingabeek haiei eragiten dieten erabakietan eta euren herritako eta herrialdeetako jardueretan parte hartu ahal izango dute, adierazpen-askatasuna baliatuz.

Konbentzioan haurren eskubide hauek jasotzen dira:

- *Hezkuntza jasotzeko eskubidea.*
- *Familia izateko eskubidea.*
- *Lehentasunezko osasun-arreta izateko eskubidea.*
- *Lan egitera behartuak ez izateko eskubidea.*

- Entzuna izateko eskubidea.
- Izena izateko eskubidea.
- Egunero jateko eskubidea.
- Elkartzeko eskubidea eta bizi diren gizartean integratzeko eta aktiboki parte hartzeko eskubidea.
- Baztertua ez izateko eskubidea.
- Tratu txarrik ez jasotzeko eskubidea.

Mundu osoan gertatzen den giza eskubideen urraketa ohikoenetako bat da haurren eta emakumeen kontrako indarkeria. Etxean, hots, familiako harremanen esparruan, geratzen da usuen indarkeria mota hori.

Halaxe diote NBEk eta Europako Kontseiluak egindako zenbait ikerketak: *etxean genero-indarkeriako egoerak bizi dituzten haurrak indarkeria horren biktima dira, ondorioak zuzen-zuzenean pairatzen dituztelako, ondorio fisiko eta emozionalak ez ezik, botere-desberdintasuna izan den eremu batean eta ama gizon baten indarkeriazko portaeraren menpe egon den inguru batean bizi eta heztetik eratorritakoak ere bizi dituztelako, indarkeria hori errepikatzen duen kateko elementu bihurtzen baititu egoera horrek.*

Lege horiekin eta Iruñeko Udalaren Haur eta Nerabeentzako I. Udal Plana bil-tzen duen lege-esparruarekin bat, honako hauek dira plan horren jarduketaren printzipio gidariak:

- Haur eta nerabeen interes gorenaren nagusitasuna.
- Udalaren jarduketa guztietan haurren ongizatea sustatzea eta haurrekiko tratu ona bermatzea.
- Haurren aurkako tratu txarren mota guztien kontrako babesa.
- Adingabeko populazioaren artean parte-hartzea, boluntariora, gizarte-elkartasuna eta asoziazionismoa bultzatzea.
- Aukera-berdintasuna eta bazterkeriarik eza, edozein arrazoiengatik.
- Desgaitasuna duten adingabeen irisgarritasun unibertsala eta arrazoizko doikuntzak; baita haien gizarteratze eta parte-hartze oso eta eraginkorra ere.
- Haur eta nerabeen nortasunaren garapen askea, norberaren orientazio eta identitate sexualaren araberak.
- Dibertsitate etniko eta kulturalaren errespetua eta balorazio positiboa.

## 5.2. ARAUDIA

### Nazioarteko eta Europako araudia

- 1979ko Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeke Konbentzioa (CEDAW) eta horren Hautazko Protokoloa (1999).
- 1984ko Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa eta horren Hautazko Protokoloa (2002).
- Beijineko Ekintza Deklarazioa eta Plataforma; Beijingen 1995ean egindako Emakumei buruzko munduko IV. Konferentzian egindako lanaren emaitza izan zen eta Nazio Batuen Batzar Nagusiak aldi berean berrikusten du.
- Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an hartutako nazioarteko akordioa.
- Genevako 1924ko Adierazpenak haurrei babes berezia emateko beharra aldarrikatu zuen. Baieztatzen hori Nazio Batuen 1959ko Haurren eskubideei buruzko Aldarrikapenean garatu zen.

### Estatuko araudia:

- Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoa.
- Delituaren biktimaren estatutuaren 4/2015 Legea.
- Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa, 2015eko abuztuaren 12an indarrean sartu zena. Lege horrek, besteak beste, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abuztuaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, aldatzen du. Lege berriaren 1. artikuluan, biktima den emakumearen seme-alabak biktima zuzentzat jotzen dira, genero-indarkeriaren eraginpean daudelako.
- Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriei buruzko abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretua. Hainbat aldaketa proposatzen dira, besteak beste, Toki-araubidearen oinarriak arautzeari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legea; 25. artikuluan o) letra gehitu zen, eta "gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko eta genero-indarkeriaren aurkako jarduketak" egiteko eskumena eman zitzaion herriei.

#### **Nafarroako Foru Komunitateko araudia:**

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea.
- Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea.
- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Nafarroako erakunde arteko III. Akordioa.
- Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea.
- Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko erregelamendua onesten duen urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretua.

- Familiari, haurrei eta nerabeei laguntzeko II. plan integrala 2017-2023.

#### **Iruñeko Udalaren araudia:**

- Iruñeko Udalaren berdintasunerako ordenantza.
- Iruñeko Udalaren III. Berdintasun Plana 2016-2022.
- Haur eta Nerabeendako I. Plana 2018-2022.
- Iruñean gizarte-eragozpenak dituzten emakumeei eta haien seme-alabei laguntzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza.
- Familietan esku hartzeko Udalaren programa erregulatzen duen ordenantza, betiere Iruñeko haurrak babestu eta sustatzeko jardueren esparruan.



# Diagnostikoa

## 6.1. HURBILKETA KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

Atal honen helburua emakumeen aurkako indarkeriari buruz eta haurren aurkako genero-indarkeriari buruz estatuan, foru-komunitatean eta udalerrian dauden datuen hasierako ikuspena ematea da.

Datuak honako epigrafe hauen arabera antolatzen dira:

- Emakumeen aurkako indarkeria.
- Adingabeen aurkako genero-indarkeria.

2020. urtea*	Espainia	Nafarroa
Bikotekideek edo bikotekide ohiek genero-indarkeriagatik hildako emakumeak	30	0
Genero-indarkeriaren ondorioz umezurtz geratutako 18 urtetik beherakoak	15	0
Amaren aurkako genero-indarkeriako kasuetan hildako adingabeak (2020/06/15eko datuak)	3	0
Genero-indarkeriagatik salaketa-kopurua	36.185	475
Babes-aginduak	9.121	84


\*Genero-indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren datu ofizialak 2020/08/31n. 2 kasu ikertzen.

Datuak daudenetik	Espainia	Nafarroa
Bikotekideek edo bikotekide ohiek genero-indarkeriagatik hildako emakumeak (2003az geroztik)	1.063	12
Genero-indarkeriaren ondorioz umezurtz geratutako 18 urtetik beherakoak (2003az geroztik)	293	0
Amaren aurkako genero-indarkeriako kasuetan hildako adingabeak (2013az geroztik)	37	0
Genero-indarkeriagatik salaketa-kopurua (2009az geroztik)	1.594.060	16.883
Babes-aginduak (2009az geroztik)	417.092	3.665

\*Genero-indarkeriaren aurkako Gobernuaren Ordezkaritzaren datu ofizialak 2020/08/31n. 2 kasu ikertzen.

2013tik, **GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEEN** kopurua erregistratzen hasi zenetik, 2020ko ekainaren 30era arte, 37 adingabe erail dira indarkeria matxistaren ondorioz Espainiako lurralde osoan, denboran zehar modu honetan banatuta:

**Eraildako adingabeak**

2013  6  
 2014  4  
 2015  5  
 2016  1  
 2017  8  
 2018  7  
 2019  3  
 2020  3

\*Nafarroako Foru Komunitatean ez da eraildako adingaberik erregistratu aldi honetan.

Genero-indarkeriari buruzko udal-datuei dagokienez, Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuak (EULZ) urteko memorian argitaratutako datuak dauzkagu. Ondorengo datuak 2019ko memoriakoak dira. EULZn urte horretan lehen aldiz artatutako kasuak 324 izan ziren, eta horiei aurreko urteetan artatutako kasuen jarraipenekoak gehitu behar zaizkie.



2019. urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
<b>Genero-indarkeria</b>	<b>140</b>	<b>-</b>	<b>140</b>
Aholkularitza biktimen familiari eta ingurukoei	5	1	6
<b>Amek jasandako indarkeriak eragindako seme-alabak</b>	<b>6</b>	<b>0</b>	<b>6</b>
Desorekak harreman afektiboetan	11	-	11
Arazoak haustura-prozesuetan	50	0	50
Arazoak ahala eta zaintza gauzatzeko orduan	26	2	28
Prostituzioa alde batera uztea	12	-	12
Zailtasun sozialeko egoera	35	0	35
Salerosketaren biktima izatearen susmoa	3	-	3

2019. urtea	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Beste batzuk	34	1	35
Daturik gabe	2	0	2
<b>Guztira</b>	<b>320</b>	<b>4</b>	<b>324</b>

Eman Zeure buruari Aukera Bat (DUO) programa EULZk emakumeei eta beren seme-alabei zuzendutako baliabide espezifikoak da eta programa horrek 41 familia-unitate artatu zituen. Honako hauek dira emandako datuak:

**2019an artatutako kasuak guztira**



 Adingabeak: 52 |  Emakumeak 41


2019. urtea	Emakumeak	%
<b>Genero-indarkeriaren biktimak</b>	<b>24</b>	<b>58,54%</b>
Familia barruko indarkeria	3	7,32%
Sexu-abusuak	1	2,44%
Prostituzioa alde batera uztea	2	4,88%
Zailtasun sozialeko egoera	1	2,44%
Haurdunak babesik gabe	7	17,07%
Gizarte-bazterkeria	1	2,44%
Adingabeak babestea	1	2,44%
Bikotearen haustura gatazkatsua	0	0,00%



2019. urtea	Emakumeak	%
Beste batzuk	1	2,44%
<b>Guztira</b>	<b>41</b>	<b>100%</b>

## 6.2. DIAGNOSTIKOAREN XEDE DIREN ARRETA-ZERBITZUEN/-EKIPAMENDUEN ANALISIA

Azterketak arreta-alor eta -baliabide hauek izan ditu ardatz, guztiak Iruñeko Udalaren mendekoak:



## Kultura eta Berdintasuneko Alorra

Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorrak sustatzen du beren amen kontrako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketa-proiektu hau, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren funtsen esparruan.

Udaleko Berdintasuneko teknikariekin harreman zuzenean aritu gara lanean, eta haiekin koordinatu dugu proiektua. Gainera, elkarrizketa pertsonal bat egin dugu, alorrak egiten duen lana zehazteko.

Iruñeko Udaleko alor honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen du, Berdintasunerako Ordenantzaren eta Iruñeko III. Berdintasun Planaren (2016-2022) esparruan. Plan hori 4 esku-hartze esparrutan egituratu da, eta sei urte hauetan garatu beharreko ekintza guztiak bideratu beharreko ildo estrategikoak ezartzen dituzte:

- Berdintasunaren gobernantza eta haren aldeko konpromiso politikoa.
- Emakumeak ahalduntzea eta balio-aldaketa.
- Zainketa-lanak eta erantzunkidetasuna bizitzaren jasangarritasunerako gaitortzea.
- Indarkeriarik gabeko bizimodua emakumeentzat.

Urtero ezartzen dira bete beharreko helburuak, betiere lau esku-hartze esparruetan arituz.

Kultura eta Berdintasuneko Alorrak ez du esku-hartze zuzenik egiten genero-indarkeriaren biktimen diren emakumeekin eta horien seme-alabekin. Iruñeko Udaleko Berdintasuneko teknikariak azaldu duenez, "Alorra herritarren sentsibilizazioa lantzen ari da emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta indarkeriak identifikatzeko".

Bere hitzekin jarraituz, "berdintasun-politikak aldatu egin dira eta alorra, emakumeentzat ez ezik, herritar guztientzat ere ari da lanean (...). Estrategia duala lantzen dugu, herritar guztiei zuzendutako ekintzekin eta emakumeei zuzendutako ekintza positiboko politikekin, baina ez dago genero-indarkeriaren biktimen seme-alabei berriaz zuzendutako ekintzarik. Gizarte- eta hezkuntza-jarduerak egiten ditugu, adibidez, sexu-aniztasunari buruzkoak, baina ez indarkeriaren prebentzioari buruzko espezifikoak".

## Gizarte Zerbitzuetako Alorra

### Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ) Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroletako Alorreko bigarren mailako arreta-programa bat da. Zerbitzu espezializatu gisa definitzen da, eta genero-indarkeriaren biktima diren edo indarkeria hori jasateko arriskuan dauden Iruñeko emakumeei arreta integrala ematera bideratuta dago.

#### EULZko talde teknikoak

Perfil profesionala	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Gizarte Lana	2	0	2
Psikologia	1	0	1
Zuzenbidea	0	1	1
Administrazio Langileak	1	0	1

Honako hauek dira, zehazki, EULZn artatzen diren arazoak:

- Genero-indarkeria: gizonak emakumeen aurka erabilitako indarkeria esparru publikoan edo pribatuan:
  - Harreman afektiboaren testuinguruan, edo harreman hori eten ondoren.
  - Familiaren testuinguruan, bikotekidea ez den beste gizon batzuek erabilia.
  - Adingabeak ziren garaiko tratu txarren eta/edo sexu-abusuen ondorioak jasaten dituzten emakume helduak.
  - Sexu-jazarpena edo genero-arrazoiengatik diskriminazioa.
  - Bikote-harreman baten testuingurutik kanpoko sexu-erasoak.
  - Bikote-harreman baten testuingurutik kanpoko eraso sexistak.
  - Sexu-esplotazioa.
  - Emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako.
- Genero-indarkeriaren biktimen familiari eta ingurukoei aholku ematea: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen familiari edo ingurukoei orientazioa

ematea, emakumeari laguntzeko, bai biktimak bere egoera onartzen duenean eta esku-hartzea onartzen duenean, eta bai onartzen ez duenean.

- Amek jasaten ari diren edo jasan duten indarkeriak eragindako seme-alaba helduak.
- Desorekak harreman afektiboetan: boterearen banaketa desberdinak sortutako desorekak, emakumeak bere eskubide eta aukerak murrizketa jasaten duen harremanean.
- Zailtasunak bikotea hausteko prozesuan: bikote-hausturaren testuinguruan sortutako zailtasunak; batzuetan, tentsio handia sor daiteke, eta horrek esku hartzea eskatzen du, indarkeriarik egon ez dadin.
- Guraso-ahala eta zaintza erabiltzeko zailtasunak: seme-alaben gaineko guraso-ahala eta zaintza ezartzeko edo egikaritzeko prozesuetan sortutako zailtasunak.
- Prostituzioa uztea: prostituzioan diharduten eta utzi nahi duten emakumeek dituzten zailtasunak.
- Gizarte-zailtasuna, aurreko arazoetako edozeinekin batera: lehen deskribatutako arazoren bat duten emakumeak, esparru batean edo gehiagotan (ekonomikoa, etxebizitza, prestakuntza- eta lan-arlokoa) gizarte-zailtasun bereziko egoeran egoteagatik larriago bihurtu direnak, edo amatasunari laguntza gutxirekin aurre egin behar diotenak.
- Salerosketaren biktima izatearen susmoa: Emakumeek beraiek sexu-esplotaziorako salerosketa-sare baten biktima izan direla aitortu ez arren, hala izan direla susmarazten duten adierazleak dituzten kasuak.
- Beste batzuk: aurreko kasuei ez dagozkien baina unean uneko eta jakineko arrazoiengatik EULZk artatzen dituenak.

EULZk emakumeen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio eta orientazio espezializatua eskaintzen ditu, bai eta dagozkien baliabide, zerbitzu eta gizarte-prestazioei buruzkoa ere, eta tratamendu psikologikoa ematen die hala eskatzen duten emakumeei.

Nafarroako Gobernuak emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko egindako jarduera-protokoloan ezarritako ildoan lan egiten du, kontuan hartuta lehen-tasuneko delatza biktima babestea eta suspertzea eta bai indarkeria-egoerak prebenitzea xede duten esku-hartzeak egitea:

- Lehen mailako prebentzioa: herritar guztiekiko sentsibilizazioa eta esku-hartzea ditu helburu.

- Bigarren mailako prebentzioa: genero-indarkeria jasateko arriskuan dauden emakumeei zuzendua.
- Hirugarren mailako prebentzioa: genero-indarkeriaren biktima izan diren edo genero-indarkeriaren biktimei lotuta dauden emakumeei zuzendua.

EULZrako sarbidea:

- Emakumeak zuzenean.
- Beste erakunde eta entitate batzuek, publiko (udalen nahiz beste erakunde publiko batzuen zerbitzuak eta programak) nahiz pribatuek (elkartek, fundazioak edo beste entitate batzuk), desbideratutako emakumeak.

Bete beharreko baldintza bakarra Iruñean errolatuta egotea da.

1996. urteaz geroztik, EULZk, baliabide espezifikoko gisa, **Eman Zeure buruari Aukera Bat (Duo)** programa du, emakumeei eta horien seme-alabei zuzendua, baldin eta, zerbitzuan artatutako arazoren bat izanik, zailtasun sozial bereziko egoeran badaude eta gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta esku-hartze integrala behar badute. Programan sartu aurretik, Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuak balorazioa egiten du.

### Haur eta Familientzako Programa

Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Alorreko Haur eta Familientzako Programaren helburua da haurren eskubideak bermatzea, haien garapena ahalbidetuko duen ingurunea ziurtatuta, prebentzio, sustapen eta babes arloko neurrien bidez, laguntza pertsonala, familiarra eta soziala emanez eta, era berean, familiar esku hartzea, babesgabetasuneko egoerak gertatzen direnean, adingabeen instituzionalizazioa eragozte aldera.

*Esku-hartzeko printzipioak:*


- Haur eta nerabeen eskubideak sustatzea eta bermatzea.
- Haurrak eta nerabeak babestea eskubide subjektibo gisa.
- Familia babestea lehenetsutako helburu gisa.
- Familiaren, komunitatearen eta babes-sistemaren artean partekatutako prebentzio-sistema.
- Detekzio, prebentzio eta esku-hartze goiztiarreko ekintzak egiteko lehenetsua.
- Gizarte-sentsibilizazioa babesgabetasunaren aurrean.

- Arreta integrala eta diziplina anitzekoa eta sareko lana.
- Gurasotasun positibotik esku hartzea, gurasoen trebakuntzan eta berreskurapenean oinarritutako kasuen planak.
- Lehenetsua 0 eta 6 urte bitarteko adin-tarteei.
- Balioespenean eta esku-hartzean kultura arteko alderdiak, genero-ikuspegia eta abar txertatzea.

*Haur eta Familientzako Programako baliabideak:*

- Haur eta Familientzako Taldeak (HFT), lehen mailako arretakoak.
- Haur eta Nerabeendako Laguntza Taldea (HNLT).
- Familiar Esku hartzeko Programa (FEHP), beren jarduera arretaren bigarren mailan eta hirian garatzen duten talde espezializatuak.

Babesgabetasun-egoeraren arabera, kasuak baliabide desberdinetara desbideratzen dira:



### Haur eta Familientzako Taldeak (HFT)

Haur eta Familientzako Taldeak (HFT) Iruñeko auzo-unitateetan kokatutako lehen mailako arretako baliabideak dira eta gizarte-zerbitzuen sisteman sartzeko atea dira. Maila arin eta moderatuko babesgabetasun-kasuak artatzen dituzte.

Hiriko auzoetan banatutako 13 talde dira: Buztintxuri, Alde Zaharra, Txantrea, Etxabakoitz, Zabalgunea, Ermitagaña, Iturrama, Mendillorri, Milagrosa, Arrotxapea, Sanduzelai, Donibane eta Lezkairu.

### Haur eta Familientzako Taldeak (HFT)

Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Gizarteratzea	10	2	12
Gizarte Lana	14	1	15*
Administrazioko langileak	-	-	-**

\*Kontratatzeko dagoen pertsona

\*\*Administrazioko langileak auzo-unitate bakoitzarenak dira, ez dira HFTenak

### HFTen esku-hartzeko prozedura:



\*Kalteberatasun- edo arrisku-egoera eta balorazio diagnostikoa (larritasun ertainaren, larriaren edo oso larriaren susmoa edo zantzuak). Orduan, kasua HFTn artatuko den edo HNLTra bideratuko den erabakitzen da.

### HFTeko sarbidea:

- Familiaren ekimena.
- Baliabide normalizatuak: ikastetxeak, osasun-zentroak, polizia...
- Hiritarren ohartarazpena.
- Adingabeen fiskaltza.
- EULZ.
- NABI.

### Gizarte Arazoak dituzten Haurrendako Laguntza Taldea (HNL)

Gizarte Arazoak dituzten Haurrendako Laguntza Taldea (HNL) haur eta nerabeei laguntzeko zerbitzu da, babesgabetasun-egoera ertain edo larri baina familiarengandik

banandu gabe dauden adingabeekin esku hartzea xede duena. Babesgabetasun-egoeran dauden 18 urte baino gutxiagokoak eta horien familiak artatzen ditu.

HNL hiru taldek osatzen dute Iruñean, eta talde bakoitzak beren eskumeneko HFTetatik desbideratutako kasuak artatzen ditu (13 HFT HNLko 3 taldetan banatuta).

### Haur eta Nerabeendako Laguntza Taldea (HNL)

Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak	Guztira
Gizarteratzea	2	1	3
Gizarte Lana	3	0	3
Psikologia	2	1	3
Administrazioko langileak	1	0	1

### HNLren eginkizunak:

Zuzeneko arreta banakako, familiako eta taldeko mailetan: arreta espezializatu emanez Haur eta Familiak Artatzeko Taldeek (HFTek) bideratutako babesgabetasun ertaineko arrisku-egoeran dauden adingabeei eta haien familiei.

- HNLren eskumeneko auzo-unitateek igorritako kasuen ikerketa eta balorazioa egitea.
- HNLn eskumeneko auzoa.
- Bigarren mailako prebentziotik esku-hartzeko proposamenak planteatzea, familiekin kasuen planak eginez, haien helburuak, jarduketak eta aplikatu beharreko baliabideak markatuz. Baita jarraipena eta ebaluazioa egitea ere.
- Sare-lana bideratzea eta sustatzea, bai baliabide instituzionalekin, bai auzoetako baliabide ez-formalekin, familiekiko esku-hartzeak hobetuko dituzten ekintzak bateratzeko eta koordinatzeko.
- Auzo-unitateetako eta talde komunitarioetako profesionalen laguntzea orientazioa eskatzen duten zailtasun sozialeko kasuetan.
- Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren haur-taldekiko koordinazioa eta elkar-lana sustatzea babesgabetasun larriko egoeretan.
- Herritarren sentsibilizazio- eta lankidetzak-neurriak bideratzea eta sustatzea, haurren babesgabetasun-arazoei eta babes-faktoreen sorrerakoei erantzuteko.

Honako hauek dira HNLTen **jarduketa-lerroak**:

- Familiako esku-hartzeak diseinatzea, haur eta nerabeen babesgabetasun-faktoreak murrizteko.
- Sentsibilizazio-planak garatzea, haurren babesgabetasun-egoerak prebenitzeko.
- Profesionalei aholku ematea babesgabetasun-egoerak hautemateko.

**HNLTen esku-hartzeko prozedura:**

Prozedura HFTkoaren berdina da baina HNLtn kasuen informazioa handitu egiten da eta talde profesional osoagoa dute.

**HNLTen esku-hartzeko prozedura:**



\*Kalteberatasun- edo arrisku-egoera eta balorazio diagnostikoa (larritasun ertainaren, larriaren edo oso larriaren susmoa edo zantzuak). Orduan, kasua HNLtn artatuko den edo HFtra edo Nafarroako Gobernuaren beste arreta-baliabide batzuetara bideratuko den erabakitzen da.

*HNLTrako sarbidea:*

- Haur eta Familientzako Taldeetatik (HFT) desbideratzea.
- Nafarroako Gobernuaren babes-sistematik desbideratzea.

**6.3. INKESTA PERTSONALAK**

Ikerketarako, 16 inkesta pertsonal egin dira, eta Gizarte Zerbitzuetako Alorreko eta EULZko Haur eta Familien Programako profesionalei bidali zaizkie.

**Inkestetan parte hartu duten pertsonak eta taldeak:**

Taldeak/Zerbitzua	Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak
Haur eta Familientzako Taldea (HFT)	Gizarte Langilea	3	1
	Gizarteratzeko Teknikaria	3	2

Taldeak/Zerbitzua	Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak
Gizarte Arazoak dituzten Haurrendako Laguntza Taldea (HNLt)	Psikologoa	1	-
	Gizarte Langilea	1	-
	Gizarteratzeko Teknikaria	2	-
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	Psikologoa	1	-
	Abokatua	-	1
	Administraria	1	-


**Inkesta pertsonalak honako informazio hau biltzeko egin dira:**

- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuen bilketari buruz profesionalak duten interes-maila jasotzea.
- Datu horiek biltzeko tresnak daudela egiaztatzea.
- Adingabeen kasuen hasierako diagnostikoa, esku-hartzeko prozesua eta kasuen amaierako ebaluazioa jasotzen dituzten tresnak dauden eta, hala bada, erabiltzen diren egiaztatzea.
- Adingabeekin lan egiten duten zerbitzu edo taldeetan kasuak sartzeko bide nagusiak aztertzea.
- Kasu horiek beste profesional batzuekin edo beste talde batzuekin nola koordinatzen diren jasotzea.
- Datu horiek biltzeko eta koordinatzeko premiak hautematea.
- Profesionalen prestakuntza espezifikoaz aztertzea, honako alor hauekin lotuta: Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuna, Emakumeen aurkako Indarkeria, Adingabeen Babesa eta Adingabeekin Gizarte- eta Hezkuntza-arloan Esku-hartzea (trauma, atxikimendua eta lotura, nahasmendu emozionalak...).
- Gizarte Zerbitzuetako Alorrean prestakuntza-planik badagoen eta Profesionalek prestakuntza-proposamen horietan nola parte hartzen duten identifikatzea.
- Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeekin esku hartzen duten pertsonen eta taldeen prestakuntza espezifikoaren beharrak hautematea, haien zereginak betetzeko.

- Alorrak edo Zerbitzuek/Taldeek adingabeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruz herritarrak sentsibilizatzeko ekintzaren bat egin duten egiaztatzea.
- Herritarrak gai horren inguruan sentsibilizatzeko aurreikusitako ekintzen plangintzarik badagoen zehaztea.
- Hobetzeko proposamenak eta jardunbide egoki posibleak identifikatzea.

### 6.3.1. INKESTA PERTSONALEN ANALISIA

#### Inkesta egin zaien pertsonen sexua



♂ Gizonak % 13 | Emakumeak ♀ % 87

#### Lan egiten duzun Zerbitzua/Taldea

Zerbitzua/Taldea	Guztira
Haur Taldea Auzo Unitatean	10
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua	3
Gizarte Arazoak dituzten Haur eta Nerabeendako Laguntza Taldea	3

#### Profil profesionala

Profil profesionala	Guztira
Gizarte Lana	5
Gizarteratzea	7
Psikologia	2
Administrazio Langileak	1
Zuzenbidea	1

#### Antzintasuna lanpostuan

- Urte 1 baino gutxiago 📅 1
- 1 eta 5 urte artean 📅 📅 📅 📅 📅 📅 6
- 5 eta 10 urte artean 📅 📅 2
- 10 eta 15 urte artean 📅 📅 📅 📅 4
- 15 eta 20 urte artean 📅 1
- 20 urtetik gora 📅 📅 2

#### Lanpostuarekin lotutako prestakuntza

Prestakuntza	Guztira
Psikologia	2
Gizarteratzea	3
Familiako esku-hartze sistemikoan aditua	1
Gizarte Lana	4
Gizarte Hezkuntza	5
Zuzenbidea	1
Familia Bitartekaritzako unibertsitateko graduondokoa	1
Kasu praktikoen Esku-hartze Sistemikoan ikuskatzea	1
Askotariko prestakuntzak	1

#### Datu-bilketari buruzko interes-maila

Zein da genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuen bilketari buruz duzun interes-maila?



🔔 Handia % 6 | 📊 Guztiz beharrezkoa % 94

### Datuak biltzeko tresnak

Ba al dago tresnarik genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuak biltzeko?



✓ Bai % 25 | ✗ Ez % 75

Datuak biltzeko tresnak
EULZren datu-basea
Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sistemako indarkeria matxistako egoeretan dauden haur eta nerabeekin esku hartzea.
Save the Children-en haurrei arreta emateko eskuliburua
Estatuko gizarte-zerbitzuetan dagoen datu-basea: SIUSS
Babesgabetasun-adierazleak biltzeko ohiko protokoloak
Ez dakit existitzen diren

### Hasierako diagnostikorako tresnak

Ba al dago genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen eta zure atalean sartzen diren adingabeei buruzko kasuen hasierako diagnostikoa jasotzen duen tresnarik?



✓ Bai % 38 | ✗ Ez % 62

### Hasierako diagnostikorako tresnak

Babesgabetasun-adierazleak biltzeko ohiko protokoloak
Estatuko gizarte-zerbitzuetan dagoen datu-basea: SIUSS
Elkarrizketa eta sareko lana
Balorazioa, eskuliburua...
Genograma
Hainbat proba psikometriko

### Esku-hartzeko prozesurako tresnak

Ba al dago genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko kasuetan esku hartzeko prozesua jasotzen duen tresnarik?



✓ Bai % 43% | ✗ Ez % 57

### Esku-hartzeko prozesurako tresnak

Estatuko gizarte-zerbitzuetan dagoen datu-basea: SIUSS
Bartzelonako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sistemako indarkeria matxistako egoeretan dauden haur eta nerabeekin esku hartzea.
Save the Children-en haurrei arreta emateko eskuliburua
Elkarrizketak eta sareko lana



### Azken ebaluaziorako tresnak

Ba al dago genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko kasuen azken ebaluazioa jasotzen duen tresnarik?



✓ Bai % 31 | ✗ Ez % 69

Azken ebaluaziorako tresnak
Oinarrizko gizarte-zerbitzuan, lehen mailako arretan normalean ez da ebaluazio-txostenik egiten. Kasua ixteko arrazoiak jasotzen dira. Arrazoa helburuak betetzea bada, datu-basean jasotzen dira.
Elkarrizketa eta sareko lana
Itxiera-txostenak
Ez dakit

### Diagnostikorako, esku-hartzerako eta ebaluaziorako tresnak erabiltzea

Tresnen ohiko erabilera
EULZren datu-basea (erabiltzailearen egoeraren isla; adingabeen egoeraren baloraziorik ez)
Bartzelonako Udalarena
Estatuko gizarte-zerbitzuetan dagoen datu-basea: SIUSS
Prozedura-eskuliburua haurren babesaren esparruan
Elkarrizketa eta sareko lana
Genograma

### Principales vías de entrada de los casos de menores

Kasuak sartzeko bide nagusiak
Gizarte-zerbitzuen beste baliabide batzuk desbideratzea
Gure zerbitzuan arreta emakumeei zuzendua dago, eta haien bidez izaten dugu adingabeen berri adingabeak zerbitzura haiekin etortzen direnean
EULZn ez dira adingabeak artatzen modu espezifikoa
Auzo-unitatea, osasun-zentroak, ikastetxeak
Auzo-unitateetako haur eta familientzako taldeetatik desbideratzeagatik
Gizarte-zerbitzuetako beste zerbitzu edo programa batzuetatik bideratzea; adingabeen fiskaltzatik bideratzea; osasun-zentrotik eta ikastetxeetatik bideratzea; familien ekimenez; familiakoa ez den partikular batek jakinarazita.
Harrera-baliabideak desbideratzea
Sartze- eta harrera-programetatik; eta/edo beste babes-sistema batzuetatik egindako desbideratzeak.

### Beste talde eta/edo profesional batzuekiko koordinazioa

Koordinazioa
Aurrez aurre edo telefonoz, programaren egokitasuna balioesteko eta, kasu batzuetan, aurkez-penerako baterako bilera
EULZko taldearen koordinazioa dago (bilerak) erabiltzaileen kasuez arduratzeko; ez dira espe-zifikoki beren seme-alaba adingabeei buruzkoak
Gizarte-zerbitzuen beste zerbitzu edo programa batzuen sareko lan-bilerak
HFTtik sarean lan egiten da. Familiak haurren programan egotea onartzen duen unetik, koordina-zio arina dago osasun-zentroarekin eta ikastetxearekin.
Kasuari buruzko beharrezko informazioa jasotzea da garrantzitsua, larrialdiak bereizi ahal izateko.
Ez da bidezkoa.



### Koordinazioa

Kasua aurkezteko bilerak, familiako eta banakako elkarrizketak, adingabe horiek edo familia artatzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa biltzea, etab.

Sareko lana sustatzen da, profesionalen artean lotura pertsonalak sortzea sustatuz.

Koordinatzeko bilerak, telefono bidezkoak, aurrez aurrekoak, jarraipenak, etxera bisitak, etab.

Auzoan dagoeneko oso finkatuta dagoen sare batean lan egiten dugu. Sare horrek, alde batetik, oharrak bateratzen ditu eta arrisku-egoerak detektatzen ditu... eta, bestetik, jakineko kasuen koordinazio-jarraipena egiten du, bai sareko denboran, bai testuinguru horretatik kanpo, hala behar denean. Zerbitzuak koordinatzea kostatu egin da, baina une honetan oso arina, aberatsa eta gure lanerako ezinbestekoa da.

### Datuak biltzeko eta koordinatzeko premiak

#### Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeen kasuetan datuak biltzeko eta koordinatzeko premiak

Askotan, adingabeen ondoezaren adierazleak ikus daitezke, baina ez da ezagutzen genero-indarkeriaren egoera. Ez zaio ematen egoera horiek merezi duten garrantzia eta oihartzuna.

Kontuan hartu beharreko seinaleak/aztarnak ezagutzea

Tresna espezifikoa eta komuna edukitzea eta jarduketa-protokolo bat ezartzea

Berariazko prestakuntza, informazioa biltzeko adierazle eta euskarri komunaren definizio komuna (gure Udalean, Emakumeentzako Arreta Zerbitzuaren eta Haurren Arretarako Taldeen jarraipenak ez dira bateratuak eta ez partekatatuak).

Emakumeen arretarako zerbitzuekin, harrera-etxeekin, poliziarekin, epaitegiarekin, kasuak bideratzearekin eta diziplinariako lanarekin koordinatzea.

Batzuetan, EULZn tratatzen ari diren kasuak iristen dira, eta ez dugu espedienterako sarbiderik, hau da, ez dakigu dagoeneko han tratatzen ari direnik.

Kasuistika jaso ahal izateko protokolo espezifikoak, familia-mota horiei arreta hobea emateko, bai eta intzidentziak jaso ahal izateko ere, gerora ikerketa-azterlanen eta ikerketa soziologikoen parte izan daitezkeenak, familia-mota horietan esku hartzeko modu eraginkorrenetan aurrera egiten laguntzeko.

Tresna espezifikoa eta arinagoa, esku hartzen duten profesionalekin sarean egon daitekeena.

#### Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeen kasuetan datuak biltzeko eta koordinatzeko premiak

Batzuetan, EULZn tratatzen ari diren kasuak iristen dira, eta ez dugu espedienterako sarbiderik, hau da, ez dakigu dagoeneko han tratatzen ari direnik.

Gure eguneroko lanean hain ohikoa den errealitate hori jaso edo agerian uzten duen tresna bat behar da. Baita profesionalak gai honetan trebatzea eta egoera kezagarri horri aurre egiteko lantaldeak sortzea ere, gizarte-zerbitzuek, hezkuntzak, osasunak, justiziak eta abarrek bat egin dezaten. Nik uste dut dena egiteko dagoela.

Datuak berreskuratzeko eta tratatzeko baliabideak.

Lehen premia datuak biltzea da. Duela gutxi arte ez genuen jasotzen emakumeek seme-alarik zuten ere. Orain badugu datu hori, baina estatistikoki ustiari daitekeen beste ezer ez. Historia klinikoetan adingabeen egoerari buruzko datu gehiago jaso daitezke, baina ez dugu haien analisi estatistikorik.

Kasuistika jaso ahal izateko protokolo espezifikoak, familia-mota horiei arreta hobea emateko, bai eta intzidentziak jaso ahal izateko ere, gerora ikerketa-azterlanen eta ikerketa soziologikoen parte izan daitezkeenak, familia-mota horietan esku hartzeko modu eraginkorrenetan aurrera egiten laguntzeko.

Egoera horretan dauden adingabe guztiek ez dute arreta jasotzen sintoma deigarriak edo leherkorak ematen ez badituzte; horregatik, pertsona horietako askok isilik sufritzen dute.

### Egungo prestakuntza

Prestakuntza espezifikoa honako gai hauetan	Guztira
Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna	8
Emakumeen aurkako indarkeria	11
Adingabeak arrisku-egoeran	10
Genero-indarkeria adingabeetan	2
Adingabeak babestea	10
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea adingabeekin (trauma, atxikimendua eta lotura, nahasmendu emozionalak...)	8

**Ba al dakizu Gizarte Zerbitzuetako Alorrean prestakuntza-planik badagoen?**



✓ Bai % 38 | ✗ Ez % 62

**Parte hartu al duzu prestakuntza hauetakoren batean?**



✓ Bai % 50 | ✗ Ez % 50

Zehaztu zeinetan
Esku-hartze sistemikoa
Nafarroako Gobernuaren Haurrak Babesteko prozeduraren II. eskuliburua
Nerabeen gaineko indarkeriari buruzko EULZ barne-prestakuntzan parte hartzea 2018an (6 ordu)
Nafarroako Adingabeen Fiskalaren txostena genero-indarkeriari buruzko espezializazio juridiko ikastaroan, 2018
Genero-indarkeria
Haur eta Familientzako Programaren prestakuntza-plana Ikuskapenarekin

**Prestakuntza-premiak**

Arlo horietakoren bateko prestakuntza handitzea behar al duzu zure zereginak betetzeko?	Total
Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna	8

Arlo horietakoren bateko prestakuntza handitzea behar al duzu zure zereginak betetzeko?	Total
Emakumeen aurkako indarkeria	11
Adingabeak arrisku-egoeran	10
Genero-indarkeria adingabeetan	15
Adingabeak babestea	9
Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea adingabeekin (trauma, atxikimendua eta lotura, nahasmendu emozionalak...)	11

Genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeekin esku hartzeko prestakuntza-premiak zure sailean/taldean
Emakumeekin/Adingabeekin esku hartzeko eta jarduteko tresnak eta protokoloak
Eragin emozionala eta portaerakoa
Oinarrizko prestakuntza gai horien inguruan, emakume horiek ondo ulertzeko eta harrera ona egiteko
Honako hauekin zerikusia duen esku-hartzea: trauma, atxikimendua eta lotura, nahasmendu emozionalak.
Ikuspegi sistemikoa esku-hartzean
Kontuan hartu beharreko alderdiak: adingabeekin/emakumeekin esku hartzeko jarraibideak, adingabeak tratatu txarrak ematen dituen aitarekin duen harremana lantzea, etab.
Adingabe horiei zer arreta eskainiko zaien eta nondik eskainiko zaien ezartzea.
Diagnostiko eta esku-hartze espezifikotarako tresnak, bai amekin, bai adingabeekin eta bai aitekin egiten den lanean.
Prestakuntza beren amek jasaten duten indarkeriak eragindako adingabeekiko esku-hartzean.
Bizipen horrek alderdi guztietan, alderdi kontzientean eta ez-kontzientean, dituen ondorioei buruzko prestakuntza. Kultura desberdinetan indarkeriari buruz duten ikuspegiaren inguruko prestakuntza.
Genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza integrala eta familia-esparruan dituen ondorioak.
Gai horren inguruko prestakuntza maila guztietan, batez ere hautemateko orduan. Genero-indarkeriari buruzko aurreiritziak begien bistatik kentzea eta genero-indarkeriaren eta kulturarte-kotasunaren gaia lantzea.

### Sentsibilizazioa

Sail/talde honetan daramazun denboran, egin al da adingabeen aurkako indarkeriari buruz herritarrek sentsibilizatzeko ekintzaren bat?



Zehaztu zeinetan
Adingabeekin zehazki ez; nerabeekin bai: nerabeekin tailerrak egin dira (Gizarte Langileak) institutu publikoetan
Adingabearen Nazioarteko Eguna; adingabea babesteko gaiekin lotutako urtean behingo asteburuko jardunaldiak (Xilemak edo beste entitate batzuek antolatutakoak)
Iruñeko Udalaren Haur Plana

Zehazki, egin al da herritarren sentsibilizaziora bideratutako ekintzaren bat adingabeen artean genero-indarkeria prebenitzeko?



Gaur egun, ba al dago ildo horretan aurreikusitako ekintzen plangintzarik?



### 6.3.2. INKESTEN ONDORIOAK

**1. helburua:** Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurunean dauden adingabeen egoerari buruzko informazioa eta datuen eskuragarritasuna identifikatzea, eta politika publikoak zehazteko behar diren datuak eta informazioa izatea ahalbidetuko duten neurri zuzentzaileak proposatzea.

**LEHENEA:** Inkesta egin zaien profesional gehienek (% 94) uste dute guztiz beharrezkoa dela genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuen bilketa egitea. Profesionaletako batek soilik erantzun du bere interes-maila altua dela (eta ez guztiz beharrezkoa), baina esan behar da bere lanak duela zerikusirik adingabeekin inolako esku-hartzerik egitearekin.

**BIGARRENA:** Inkesta egin zaien pertsonen % 75ek uste du ez dagoela genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuak biltzeko tresnarik. Beste % 27k uste du badaudela eta, ondorioz, tresna horiek eskuratzeko aukera ez da berdina talde guztientzat edo profesional batzuek ez dakite halakorik badagoen.

**HIRUGARRENA:** Kasuen hasierako diagnostikorako, esku-hartzerako eta ebaluaziorako tresnak badaudela erantzun duten pertsonak inkestari erantzun dioten pertsonen % 30 eta % 40 artean dira (prozesuaren unearen arabera) eta Gizarte Zerbitzuen Erabiltzaileen Informazio Sistema (SIUSS) eta EULZn berezko datu-basea aipatzen dituzte gehien bat.

**LAUGARRENA:** Adingabeen kasuak haur eta familien zerbitzuetan eta EULZn sartzeko bide nagusiak honako hauek dira: gizarte-zerbitzuetako beste talde batzuetatik bideratzea; adingabeen Fiskaltzatik bideratzea; espazio normalizatuetatik bideratzea, hala nola osasun-zentroetatik edo hezkuntza-zentroetatik, familiaren ekimez edo partikular baten (familiakoa ez den pertsona baten) jakinarazpenaren bidez.

**BOSGARRENA:** Profesionalen arteko koordinazioari dagokionez, bai dago sareko lana HFT eta HNLTKo taldeen artean. HNT taldeek sarean lan egiten dute ikastetxeekin eta osasun-zentroekin; HNLTK, EULZekin, ikastetxeekin, osasun-zentroekin, osasun mentaleko zentroekin eta aisialdiko eta denbora libreko baliabide komunitarioekin.

**SEIGARRENA:** Adingabeekin eta emakumeekin lan egiten duten talde guztientzako datuak biltzeko tresna bat izateko eta esku-hartze komunerako jarduera-protokolo

bat ezartzeko premia hauteman da. Beharrezkoa da adierazleak protokoloz definitzea eta informazioa biltzeko euskarri komunak ezartzea.

**2. helburua: Profesionalen espezializazio-maila eta erantzun instituzionalerako gaitasuna identifikatzea, beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz beren familia-ingurunean arrisku-egoeran dauden adingabeekin esku hartzeko eta arrisku hori hautemateko, eta profesionalen prestakuntza eta detektatzeko eta esku hartzeko gaitasuna hobetzeko neurriak proposatzea.**

**LEHENA:** Inkestatutako pertsonen artean, bik baino ez dute adierazi adingabeen artean genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jaso dutela. Ia erdiek berdintasunari eta adingabeen babesari buruzko prestakuntza jaso dute, eta % 75ek, genero-indarkeriari buruzkoa eta adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeari buruzkoa.

**BIGARRENA:** Inkestari erantzun dioten profesionalen % 38k baino ez du ezagutzen Gizarte Zerbitzuetako Arloko prestakuntza-plana, eta prestakuntzaren batean parte hartu du.

**HIRUGARRENA:** Pertsona guztiak beharrezkotzat jotzen dute adingabeen genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jasotzea. Halaber, % 80k prestakuntza behar dute emakumeen aurkako indarkeriari buruz eta adingabeekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeari buruz. Erantzun duten profesionalen erdiek soilik uste dute emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloko prestakuntza behar dutela.

**LAUGARRENA:** Taldeen prestakuntza-beharrei dagokienez, pertsona guztiak egin dute ekarpenen bat adingabeen genero-indarkeriari dagokionez. Interes berezia dute hasierako diagnostikoa eta kasu horietako esku-hartzea hobetuko duten alderdi praktikoetarako.

**3. helburua: Herritarrek sentsibilizatzeko beharrak identifikatzea eta estrategiak definitzea, adingabeek jasaten dituzten indarkeria-mota guztiak ezagutu eta prebenitu ahal izateko.**

**LEHENA:** Bi pertsonak baino ez dute ezagutzen herritarrei zuzendutako genero-indarkeria jasaten duten adingabeei buruzko sentsibilizazio-kanpainaren bat: Adingabeen Nazioarteko Egunaren aldeko urteko jardunaldiak eta Iruñeko Udalaren Haur Plana.

**BIGARRENA:** Inork ez daki herritarrek genero-indarkeria jasaten duten adingabeei buruz sentsibilizatzera bideratutako ekintzen plangintza bat dagoela.

## 6.4. ELKARRIZKETA PERTSONALAK

Elkarrizketa pertsonaletan parte hartu duten pertsonak eta taldeak:

Arloa	Taldeak/Zerbitzua	Profil profesionala	Emakumeak	Gizonak
Kultura eta Berdintasuneko Alorra		Berdintasuneko teknikaria	1	-
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	Haur eta Familientzako Programa	Taldeko arduraduna	1	
	Haur eta Familientzako Taldea (HFT)	Gizarte Langilea	2	
		Gizarteratzeko Teknikaria	1	
	Gizarte Arazoak dituzten Haurrendako Laguntza Taldea (HNLT)	Psikologoa	1	
		Gizarte Langilea	2	
		Gizarteratzeko Teknikaria	1	
Ekintza Komunitarioa	Taldeko arduraduna		1	
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)		Psikologoa	1	
		Abokatua		1
		Administraria	1	
Elkarte-ehuna	Andrea-Lunes Lilas	Kidea	1	
NUPeko ikertzaileak	Programa Familias, Exclusión Social y Espacios de Seguridad (FSEPS)	NUPeko psikologoa, Psikologia Sozialeko Doktorea eta Irakaskuntza eta Ikerketako langileak	1	

### Inkesta pertsonalak honako informazio hau biltzeko egin dira:

Elkarrizketa pertsonalak
Zerbitzuaren/Baliabidearen barruko funtzioak
Antzematen al dira genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuak? Biltzen al dira emakumeen eta horien kargura dauden adingabeen datuak? Nola biltzen dira datuak?
Nola kudeatzen da genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin egindako esku-hartzea?
Nola egiten da genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeekin lan egiten duten beste talde batzuekiko sare-lana edo koordinazioa? Eta Udaleko beste alor batzuekin, esaterako, Kultura eta Berdintasuneko Alorrek?kin?
Nola planifikatzen ditu zerbitzuak/taldeak indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-ala-bei buruzko ekintzak?
Zure ustez, beharrezkoa al da genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei buruzko prestakuntza zabaltzea? Zer posturi eman beharko litzaieke lehentasuna?
Zure ustez, falta al da figura profesionalen bat genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuetan kalitate handiagoa emateko behar diren taldeetan?
Zure alor edo zerbitzuak egin al ditu biktima diren adingabeei buruzko sentsibilizazio-kanpainak? Zer motatakoak? Parte hartu duzu?
Beharrezkoa iruditzen al zaizu herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta adingabeen aurkako genero-indarkeriari buruz? Bururatzen al zaizu edo pentsatu al duzu zer egin daitekeen Kultura eta Berdintasuneko Alorretik? Non izango litzateke lehentasunezkoa?
Ikerketan sartuko dugun Ekintza Planean, zer espero edo uste duzue sartu beharko litzatekeela?
Zure lanpostuari edo funtzioei dagokienez, zer iruditzen zaizu ezinbestekoa diagnostikoan jasota geratzea?

#### 6.4.1. ANALISIA ETA ONDORIOAK

Jarraian, Iruñeko Udaleko Kultura eta Berdintasuneko Alorrak planteatutako hiru helburu nagusien inguruko ikerketa-lan hau garatzeko egindako elkarrizketa pertsonalen ondorio batzuk aurkeztuko dira:

**1. helburua: Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurunean dauden adingabeen egoerari buruzko informazioa eta datuen eskuragarritasuna identifikatzea, eta politika publikoak zehazteko behar diren datuak eta informazioa izatea ahalbidetuko duten neurri zuzentzaileak proposatzea.**

Lehena: Ez dago adingabeengan indarkeria detektatzeko prozedurarik, ezta haien amengan eragindako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei arreta espezializatua emateko protokolorik ere	
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen 8/2015 Lege Organikoa indarrean jarri arte, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ez ziren hartu indarkeria horren eraginpean egotearen zuzeneko biktimatzat. Bost urte geroago, adingabeak eta emakume biktimak artatzen espezializatutako zerbitzuek ez dute oraindik garatu adingabe horientzako arreta espezializatuko protokolo egokirik.</li> <li>• Bai HNLTK eta bai HFTk esku-hartzeko prozedura bera dute kasu bat sartzen denean: harrera, ikerketa, ebaluazioa-kodiagnostikoa, esku-hartzeko plana, balorazioa eta itxiera.</li> <li>• HFTk prozedura ezagutzen du eta kasu errazagoetan aplikatzen du baina, askotan, prozedura hori datu-basean ezin dutela jaso esaten dute, ez dutelako denborarik edo langilerik hori egin ahal izateko.</li> <li>• HFTn, ordea, kasu bakoitzean lantzen den guztia erregistratuta geratzen da eta, beharrezkoa denean, osasun-alorrarekin eta ikastetxeekin koordinatzen dute. Informazio osoa eta egiten diren ekintza guztiak biltzen dira eta, 15 egunean behin, kasuaren bilakaera eta ekintzen funtzionamendua ebaluatzen dira. Baina egon beharko lukeen plan idatzirik ez dagoela diote.</li> <li>• Eskiera bat dago genero-indarkeria jasaten duten adingabeen inguruko egoerekin. Egoera horiek askotan ez dituzte detektatzen lehen mailako arretako taldeek edo berandu detektatzen dira. Prebentzio on bat egiteko behar adinakoak ez diren detekzio-mekanismoak egon daitezke. Detektatzeko sartu daitezkeen elementu guztiak beharrezkoak izango lirateke.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuan (EULZ), esku-hartzea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin bakarrik egiten da. Haien seme-alabak ez dira artatzen eta, premia larria hautemanez gero, kasuak Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegora bideratzen dira.</li> <li>• EULZren mendeko Eman Zeure buruari Aukera Bat programa (DUO) harrerako baliabide bat da eta, ondorioz, emakumeekin eta horien seme-alabekin lan egiten du.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunak ez du esku-hartze zuzenik egiten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta horien seme-alabekin. Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eta identifikatzeko sentsibilizazioa lantzen da. Beraz, ez dago emakumeen datu-baserik ez direlako zuzenean joaten Berdintasunera.</li> </ul>

Bigarrena: Ez dira jasotzen amek jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko datuak	
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• HFTn adierazi dute interesgarria litzatekeela Jarraipen Fitxan atal bat gehitzea, amek genero-indarkeria jasaten duen edo jasan duen eta adingabeak indarkeria horren biktima diren jakiteko.</li> <li>• SIUSS sistemak atal bat du genero-indarkeriaren biktima diren adingabeentzat eta tratu txarren biktimentzat. Hala ere, HFT eta HNLTKo taldeek ez dituzte erabiltzen, praktikoa ez dela argudiatuta.</li> <li>• SIUSS sistemak atal bat du genero-indarkeriaren biktima diren adingabeentzat eta tratu txarren biktimentzat. Hala ere, HFT eta HNLTKo taldeek ez dituzte erabiltzen, praktikoa ez dela argudiatuta.</li> <li>• Ez dago genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei buruzko datu espezifikorik, eta ez da inolako erregistorik egiten. Ez eta EULZrekin batera lan egiten den kasuena ere. HNLTKren azken bi memorietan jaso da, artatutako familietatik, genero-indarkeriaren biktima izandako zenbat emakume eta zenbat adingabe artatu ditugun. Baina kasuz kasu kontatu dira, ez dago sistematizatuta.</li> </ul>

**Bigarrena: Ez dira jasotzen amek jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko datuak**

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adingabeei dagokienez, honako informazio hau baino ez da jasotzen: zer emakumek dituzten elkarrekin bizi diren seme-alabak eta zenbat. Aldaketa-prozesu bat dago indarkeriak eragindako haurrei buruzko informazio espezifiko sartzeko, baina oraindik ez da egin.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunak ez du esku-hartze zuzenik egiten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta horien seme-alabekin. Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eta identifikatzeko sentsibilizazioa lantzen da. Beraz, ez dago emakumeen datu-baserik ez direlako zuzenean joaten Berdintasunera.</li> </ul>

**Hirugarrena: Taldeek ez dute datu-base komunik amek jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko datuak biltzeko**

Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aztertutako Haur eta Familien Programako taldeek (HNLt eta HFT) Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistema (SIUSS) erabiltzen dute datu-base gisa. Sistema hori Estatuan sortu zen gizarte-zerbitzuetarako. Taldeek informazioa partekatzen dute datu-base horren bitartez.</li> <li>• HFTek beren Excel taula dute datuak biltzeko, eta bertan biltzen dute kasuen tratamendurako garrantzitsua den informazio asko. Baina HFT bakoitzak bere datu-taula dauka, eta ez dator bat taula honetako informazioarekin, ez beste HFT batzuekin, ez HNLt-rekin.</li> <li>• Genero-indarkeriari buruzko datu-bilketa ez dago sistematizaturik. Nafarroako Gobernuaren Prozeduraren Eskuliburu berrian argi agertzen da zer den genero-indarkeriaren eragin-pean egotea, baina oraindik ez da martxan jarri.</li> <li>• SIUSS sistemak atal bat du genero-indarkeriaren biktima diren adingabeentzat eta tratatu txarren biktimentzat. Haur taldeak ez dira erabiltzen, ez delako praktikoa, oso zaila delako informazioa eguneratuta edukitzea eta pertsona askok espediente bera erabiltzen dutelako. Indarkeriaren biktima diren adingabeekin egiten den lanean modu espezifikoan adierazi beharko litzatekeen epigrafea dela diote. Horretarako, gainera, prestakuntza behar da.</li> <li>• Baliteke HNLt ez jakitea artatzen ari diren emakume bat EULZn ere artatzen ari direla, emakumeak berak esaten ez badu. Bere datu-basera sartzeko ezinezkoa delako da, EULZek SIUSSera sartu ezin duen bezala.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Datu-bilketari dagokionez, EULZk bere datu-basea dauka, eta bertan jasotzen da zer emakumek dituzten elkarrekin bizi diren seme-alabak eta zenbat. Datu-base hori aldatzeko prozesuan dago, indarkeriak eragindako haurrei buruzko informazio espezifiko sartzeko. Baina datu-base hori EULZren berariazkoa eta eskusiboa da, eta beste ezein baliabide ezin du eskuratu.</li> <li>• EULZek bere datu-basea sortu du, Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistema (SIUSS) gizarte-zerbitzuetarako sortu zelako eta, bere hitzetan, "Gure zerbitzua Lehen Mailako Arretako Gizarte Zerbitzua ez denez, ez da datu-sistema horretan sartzen. SIUSS sistema zabaltzeko prozesu bat egon zen, genero-indarkeriako kasuak sartzeko eta eskura izateko, baina azkenean ez da gauzatu, prestakuntza eman ziguten arren".</li> <li>• EULZko taldearentzat, funtsezkoa izango litzateke bere datu-basean sartzeko genero-indarkeriak adingabeengan duen eragina: zuzeneko indarkeria jasaten duten edo lekuko diren, eta jasotako indarkeriak eragiten dien.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunak ez du esku-hartze zuzenik egiten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta horien seme-alabekin. Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko eta identifikatzeko sentsibilizazioa lantzen da. Beraz, ez dago emakumeen datu-baserik ez direlako zuzenean joaten Berdintasunera.</li> </ul>



**Laugarrena: Sistematizatorik eza emakumeei eta adingabeei arreta emateko udal-zerbitzu edo -baliabideen arteko koordinazioan**

<p>Gizarte Zerbitzuetako Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• HNLTran eginkizunen artean dago beste talde batzuekiko esku-hartzea koordinatzea (HFT, EULZ eta Nafarroako Gobernuaren baliabideak, kasu oso larrietan). Gainera, koordinazio espezifikoa egiten du osasun-zentroetako gizarte-langileekin eta auzo-unitateekin.</li> <li>• HNLTran koordinatuta dago HFTekin. HFTetara iristen diren adingabeen ehuneko oso handi batek genero-indarkeria jasan du (edo haien amek jasan dute, edo bikotekidearengandik indarkeria jasan duten emakume adingabeak dira, edo biak). Kasuak oso larriak direnean edo esku-hartze psikologikoa behar dutenean, HNLTra bideratzen dira. Kasu horretan, hilean behin koordinazio-bilera bat egiten da kasuen jarraipena egiteko. Kasua bere konplexutasunagatik bideratu bada ere, HNLTran arduratzen da hezkuntza-alderdiaz, eta HFT arduratzen da oraindik izapide eta laguntza ekonomikoen alderdiaz.</li> <li>• Ezin da zuzenean sartu HNLTra, beti pasatu behar du HFTtik, hark bideratzen baititu babesgabetasun-kasu larriak. Horregatik, EULZtik edo beste edozein zerbitzu edo baliabide-tatik (osasun-zentroak, ikastetxeak, komunitate-zentroak, etab.) bideratutako kasu bat HNLTran sartzeko, lehenik eta behin HFTtik pasatu behar da, hark bideratzen baitu.</li> <li>• Indarkeriaren biktima diren adingabeak prozesu horretan sartzen dira, lehenik eta behin HFTn eta, hala badagokio, HNLTran, baina ez dago haientzako prozedura propiorik. Jarduteko prozedura bat beharko litzateke eta, horrek funtziona dezan, funtsezkoa da hasierako identifikazioa.</li> <li>• HFTk adierazi du koordinazio gutxi dagoela EULZrekin, eta adierazi dute ezin dituztela beren datuak eskuratu, beren bilketa-tresna propioa dutelako eta ez dutelako SIUSS sistema erabiltzen.</li> <li>• HFTak ere ez daude Berdintasunarekin koordinatuta, eta ez dago zuzeneko harremanik. Adingabe edo familien kasu oso konplexuetan, HFTak edozein talde edo alorrekin koordinatzen dira, Udalekoak nahiz Nafarroako Gobernuak.</li> <li>• HNLTk, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzen dituenak, bideratu baino gehiago, EULZrekin partekatzen du esku-hartzea (laguntza juridikoa, esku-hartze psikologikoa, DUO eta antzeko baliabideak eskuratzea, talde-prestakuntza...) baina, genero-indarkeriaren kasuetan adingabeak daudenean, babesgabetasun moderatu-larria dagoenean, HNLTk zuzentzen du kudeaketa. Kasuak batera landu daitezke, baina ez dago EULZ-HNLTran artean koordinatzeko metodologiarik.</li> <li>• HNLTran gisa ez da lankidetzaz zuzenik egiten beste udal-alor batzuekin, baina Haur Plana diseinatzen lagundu du (plan hori hainbat alorren artekoa da, eta bere helburuetako bat alorren arteko koordinazioa eta lana hobetzea da).</li> <li>• Garrantzitsua izango litzateke haur-eskolekin koordinatzea indarkeriaren detekzio goiztiarra hobetzeko.</li> </ul>
<p>Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• EULZek ez du adingabeen taldeetara desbideratzerik egiten.</li> <li>• HFTk HNLTra bideratzen ditu genero-indarkeriaren biktima diren emakume batzuk.</li> <li>• Koordinazio egonkorrik ez dagoela uste dute. EULZ duten batzordeak eta lantaldeak egiten badira eta lantaldeak bertan parte hartzen du. Baina ez dago ohiko koordinaziorik, aldian aldiko lanak baizik.</li> </ul>
<p>Kultura eta Berdintasuneko Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste arreta-talde batzuekin koordinatzeari dagokionez, proiektu batzuk batera gauzatzen dira, hala nola "sanferminak berdintasunean", Emakumearen Udal Kontseiluak eskatuta hasi zena. Proiektu honetan, Berdintasunak mugimendu feministarekin, EULZrekin eta Herritarren Segurtasunarekin koordinatuta lan egiten du. Sanferminetako kanpainak diseinatzeke sortu zen, baina funtzio gehiago hartzen joan da.</li> <li>• Egitura egonkor bat sortzeko beharra ikusi da, urte osoan lan egingo duena eta lau sektoreak koordinatuko dituena.</li> <li>• Elkarriketatutako berdintasun-teknikariak azaldu duenez, "EULZrekin koordinazioa indartzeko beharra dago, eta egitura hori elementu baliagarria izan daiteke. Koordinazioa indartu beharko litzateke, Berdintasun Alorrean lana eraginkorragoa izan dadin eta EULZk ikuspegi feminista txerta dezan emakumeak eta haurrak suspertzeko orduan".</li> <li>• Alorrean uste dute haur-planen, haur-eskolen eta abarren artean koordinazioa egon beharko lukeela Berdintasunarekin. Koordinazioari dagokionez, talde bakoitzak misio bat eta funtzio batzuk izan beharko litzuzke. Alor bakoitzerako koordinazio-egitura espezifikoak sortzea izango litzateke kontua.</li> </ul>



**2. helburua: Profesionalen espezializazio-maila eta erantzun instituzionalerako gaitasuna identifikatzea, beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz beren familia-ingurunean arrisku-egoeran dauden adingabeekin esku hartzeko eta arrisku hori hautemateko, eta profesionalen prestakuntza eta detektatzeko eta esku hartzeko gaitasuna hobetzeko neurriak proposatzea.**

Lehena: Talde guztiek beharrezkotzat jotzen dute adingabeetan eta genero-indarkerian espezialistak diren profesionalak sartzea	
	<p>Elkarrizketatutako zerbitzuetako langile guztiek adierazi dute beharrezkoa dela taldeetan adingabeetan eta genero-indarkerian espezializatutako pertsonak izatea. Honako figura hauei buruz ari dira bereziki:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkerian aditua den haur-psikologoa.</li> <li>• Gizarte-hezitzailea, gizarte- eta hezkuntza-alderdiak lantzeko.</li> <li>• Adingabeen premia pedagogikoak edo gizarte- eta hezkuntza-arlokoak estaliko dituen profesionala.</li> <li>• Figura profesionala ikastetxeetan, adingabeei buruzko informazioa zuzenean jaso dezakeena.</li> </ul>
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarrizketatutako profesionalen arabera, psikologoek eta gizarte-hezitzaileen lanbide-profilak gutxietsita daude.</li> <li>• Talde guztietan ikusten da langile espezializatuak sartu behar direla; izan ere, genero-indarkeriak trauma-egoera dakar, eta horrek adingabeen eta familien garapena eta horiekiko esku-hartzea baldintzatzen ditu. Elkarrizketatutako profesional batek azaldu duenez, "Hasieratik esku hartu behar da, sintomak belaunaldiz belaunaldi betikotzen direlako".</li> <li>• HNLren ustez, psikologiaren figura beharrezkoa litzateke esku-hartze terapeutikoa egiteko. Figura hori ziurtatuta dago baloraziorako, baina ez esku hartzeko. Figura horrek adingabeetan eta genero-indarkerian espezializatuta egon beharko luke; izan ere, adingabeen behar adinako kopurua dago haurren programan landu ahal izateko. HNLk ez ezik, auzo-unitateek ere esku-hartzeak babestu litzakete.</li> <li>• Haur Taldean gero eta gehiago lantzen dira gatazka judizializatuak dituzten genero-indarkeriako kasuak baina, maila juridikoan, ez dago figura profesional bat zuzenean esleituta. HNLk ofiziozko txandako profesionalekin lan egiten du, eta batzuetan EULZko abokatuaren aholkularitzarekin.</li> <li>• HFTk uste du haurren psikologoa egongo izan balitz lantaldetik askoz kasu gehiago landu ahal izango lituzketela, HNLtra bideratu beharrik gabe.</li> <li>• Normalean ikastetxeetan detektatzen dira indarkeria-kasu gehienak, baina asko ez dira jakinarazten. Adingabeek figura bat behar dute hitz egiteko, esku hartu ahal izango duena, eta identifikatutako kasuak bideratu.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• EULZ taldeak genero-indarkerian aditua den adingabeen psikologo bat kontratatuzko proposamena egin zuen, adingabeei arreta zuzena emateko. Beharrezkoa iruditzen zaie Genero Indarkeriaren Arreta Zerbitzua ezartzea, emakumeak nahiz adingabeak barne hartuko dituen.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Profesional guztiek oinarritzko trebakuntza izan behar dute genero-indarkeriako egoerak detektatzeko baina, gainera, figura jakin bat egon behar du adingabe horiekin esku hartzeko.</li> </ul>

Bigarrena: Elkarrizketatutako profesionalak uste dute nahitaezkoa dela beren taldeetan Genero Indarkeriari buruzko prestakuntza egotea	
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Funtsezkotzat jotzen da genero-indarkeriari buruzko prestakuntza, adingabeak bizitzen ari diren indarkeria edo kaltea, indarkeriak haurraren duen dimentsioa edo eragina eta kasu bakoitzari aurre egitea detektatzeko.</li> <li>• Haur-taldeetan genero-indarkeriari buruzko prestakuntza behar da. HNLN ez dago ziurtatuta prestakuntzarik, ezta hurrei eta adingabeei buruzko prestakuntzarik ere, taldeak trebakuntza jakin bat duten gizarte-zerbitzuetako funtzionarioz osatuta baitaude. Askoz gutxiago ziurtatuta dago genero-indarkeriari buruzko prestakuntza. Profesionalak ez dute generoari buruzko prestakuntzarik eta, horregatik, esku-hartzeak ez daude ondo eginda.</li> <li>• Erronka handia litzateke profesionalak, eguneratzeko, gutxieneko oinarrizko prestakuntza bat eskatzea. Prestakuntza iraunkorra eta gutxieneko espezializazioa.</li> <li>• HFTk adierazi du funtsezkoa izango litzatekeela talde osoak prestakuntza jasotzea adingabeengan genero-indarkeriari buruz, kalte emozionalari buruz, garapen ebolutiboari buruz... Baina, batez ere, beharrezkoa ikusten du prestakuntza praktikoa jasotzea: genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuak identifikatzen jakitea eta, batez ere, gero haiek nola jokatu jakitea. Metodologia bat izatea.</li> <li>• Elkarrizketatutako profesionalen iritziz, gizarte-hezitzaile, gizarte-langile eta psikologo taldeen prestakuntza lehenetsi beharko litzateke.</li> <li>• Haurren eskubideak babesteari eta bermatzeari buruzko prestakuntza beharko litzateke; ikusarazi egin beharko litzateke eskubide horiek ez daudela eskusioarekin bakarrik lotuta, alor gutziek esku hartu behar dutela eskubideak bermatzeko.</li> <li>• Prestakuntza nahitaezkoa da amaren eta seme-alaben arteko lotura eta atxikipena lantzeko.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Funtsezkotzat jotzen dute genero-indarkeriari buruzko oinarrizko prestakuntza izatea, talde osoarentzat komuna eta, gainera, profesional bakoitzak bere prestakuntza espezifikoa izatea.</li> <li>• EULZ taldeko administrariak izangaien zerrendaren arabera kontratatzen dira, eta ez dago eskakizun espezifikorik genero-indarkeriaren arloko prestakuntzari dagokionez. Uste dute zerbitzuan arreta eskatzen duten emakumeen lehen kontaktua administrazioko langileak direnez, lanpostua betetzeko nahitaezko baldintza izan beharko litzatekeela emakumeen aurkako indarkeriari buruzko oinarrizko prestakuntza jasotzea.</li> <li>• Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta biktima adingabe horien amekin ez da ezer egiten hazkuntzari dagokionez. Garrantzitsua da amaren eta seme-alaben arteko lotura lantzea, jasotako indarkeriak kaltetuta egon daiteke eta. Alderdi horrek ez du orain arretarik jasotzen, kasua oso larria ez bada edo emakumearen eskaera espezifikorik ez badago.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza beharko litzateke adingabeen eskubideen, dagokien araudiaren eta dagokien eskubideen esparruan.</li> <li>• Profesional guztiek oinarrizko trebakuntza izan behar dute genero-indarkeriako egoerak detektatzeko baina, gainera, figura jakin bat egon behar du adingabe horiekin esku hartzeko.</li> <li>• Adingabeei buruzko egungo araudian ez dago genero-ikuspegirik. Legeak egiteko orduan, genero-ikuspegiak presente egon behar du beti.</li> </ul>

### 3. helburua: Herritarrak sentsibilizatzeko beharrak identifikatzea eta estrategiak definitzea, adingabeek jasaten dituzten indarkeria-mota guztiak ezagutu eta prebenitu ahal izateko.

Lehena: Ez dago amek jasandako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeak kontuan hartzen dituen genero-indarkeriaren aurkako kanpainarik.	
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin ez da kanpainarik egin. Bai, ordea, emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa.</li> <li>• HNLren funtzioen artean dago haurren babesari buruzko sentsibilizazioa eta arreta-giden hedapena, funtzio hori, egia esan, auzo-unitateek egiten badute ere. HNLk ez ditu kanpaina espezifikoak zuzentzen, baina kolaborazioak egiten ditu.</li> <li>• Ez da kanpainarik egin, baina alorrean planteatu da egitea. Diziplina arteko begiradarekin diseinatu beharko litzateke: adibidez, Coviden krisian ahaztuta egon diren haurrak eta nerabeak berreskuratzea.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• EULZk ez du egin genero-indarkeria jasaten duten adingabeei modu espezifikoan zuzendutako kanpaina edo ekintzarik.</li> <li>• Sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak batzuk, jardunaldiak, zinema eta antzeko jarduerak, irakurketa-taldeak eta abar egin dira, baina zerbitzuak artatzen dituen emakumeei edo, oro har, biztanleei zuzenduta, ez adingabeei zuzenduta.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Martxoaren 8a edo azaroaren 25a direla-eta Udalak egiten dituen adierazpen instituzionaletan, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari buruz hitz egiten da, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka jarduteko 14-2015 Foru Legeak jasotzen duen bezala. Adierazpen horietan neskak aipatzea neskak bistaratzea da. Baina beren amek jasaten duten indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei dagokienez, ez da beste ezer egin.</li> <li>• Kanpainak Berdintasunetik programatzen dira, Nafarroako Gobernuko Berdintasun Teknikarien Sarearekin koordinatuta, goiburu partekatuta batekin, eta bien artean diseinatutako kartelarekin eta manifestuarekin; gero, udalerrri bakoitzak egiten du programazioa. Kanpainak eta goiburuak gaurkotatzean oinarrituta erabakitzen dira, baina ez da inoiz egin genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei buruz.</li> <li>• Egun berezietan, hala nola martxoaren 8an, azaroaren 25ean edo sanferminetan, haurrei zuzendutako jarduerak programatzen dira, baina ez soilik indarkeriaren prebentzioari buruzkoak, baita beste gai batzuei buruzkoak ere, hala nola emakumeen presentziari eta ikusgarritasunari buruzkoak.</li> </ul>
Bigarrena: Elkarrizketatutako profesional guztien iritziz, funtsezkoa da herritarrak genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea.	
Gizarte Zerbitzuetako Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garrantzitsua da genero-indarkeriari buruzko edozein sentsibilizazio-lan egitea herritar guztientzat eta irakasleentzat.</li> <li>• Emakumeen aurkako genero-indarkeria bistaratuta dago, baina ez adingabeen aurkakoa. Indarkeria hori ere bistaratzea behar da.</li> </ul>
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero-indarkeriari buruz antolatzen diren kanpaina publikoetan, adingabeak agertu behar dira.</li> <li>• Esparru profesionaletik kanpo, genero-indarkeriaren inguruko gauza asko falta dira bistartzeko.</li> <li>• Sentsibilizazio-kanpainak egin beharko lirateke edozein espaziotan eta edozein unetan: garrantzitsua da herritarrengana iristea. Askotariko guneeetan egin behar da, gizarte-zerbitzuetara ez baita biztanleria osoa iristen: ikastetxeak, osasun-zentroak, espazio komunitarioak...</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urratsak eman beharko lirateke genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak sentsibilizatzeko eta ikusarazteko. Sentsibilizazioak aldaketak ekarri ditu arau-esparruan eta administrazio publikoan.</li> <li>• Garrantzitsua izango litzateke herritar guztientzat komuna den zerbait egitea eta, gainera, ekintzak zehaztea sektore zehatzagoen eskakizunen arabera, adibidez, irakaskuntzaren esparruan.</li> <li>• Garrantzitsua izan daiteke auzo-kanpainak egitea, txikiagoak, herri edo auzo bakoitzaren errealitatearekin bat datozenak.</li> </ul>

**Hirugarrena: Ezinbestekoa da emakumeekin eta adingabeekin lan egiten duten eta esku hartzen duten profesional guztiak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.**

<p>Gizarte Zerbitzuetako Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haur eta Nerabeen Udal Plana testuinguru egokia izango litzateke edozein motatako sentsibilizaziorako. Programa horrek alorren arteko koordinazioa ezartzen du, adingabeak ez daitezen egon soilik gizarte-zerbitzuen mende. Eskubide-kontua dela eta, horregatik, arlo guztiek esku hartu behar dutela ikusaraztea.</li> <li>• Sentsibilizatze orduan, adingabeak biltzen diren espazioek lehentasuna izan beharko lukete: hezkuntza-etapa guztiak, osasun-zentroak (pediatria), aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, auzo-unitateak ...</li> <li>• Sentsibilizazioak lehentasuna izan beharko luke, batez ere hezkuntza-sisteman, indarkeria txikitatik identifikatu behar delako.</li> <li>• Oro har sentsibilizatu beharko litzateke, gizarte-zerbitzuetatik egiten dena "baliabiderik gabeko pertsonentzat" dela interpretatzen dutelako herritarrek. Eremu normalizatuetan egon behar du: osasun-zentroetan, eskoletan, elizan ...</li> <li>• Sentsibilizazioa, alde batetik, herritar guztiei zuzenduta egon beharko litzateke eta, bestetik, irakasleei zuzenduta; izan ere, azken horiek egunero izaten dute harremana haur eta nerabeekin eta horiek antzeman dezakete gehien, baina lehenik eta behin jakin egin behar dute zertaz ari garen hitz egiten. Aitortu behar dute indarkeria horrek adingabeengan duen garrantzia eta ondorioak, eta informazioa eman behar dute kasuak detektatzen dituztenean. HFTren iritziz, gutxitan egiten dute hori, batez ere irakaskuntza itunduan. Aitzitik, HNLtrentzat, auzoetan lehen mailako arretoa ezarri zenetik, azken urteetako aurrerapen handienetako bat da sareko lana, irakasleak horretan inplikatu baitira. Beren ustez, ikaste-teeetan lan handia egiten ari dira arazoa hautemateko eta haur-taldeak informatzeko.</li> </ul>
<p>Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beharrezkoa da genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea adingabeekin eta emakumeekin lan egiten duten profesional guztiak, gizarte-zerbitzuetara ez direlako herritar guztiak iristen: ikastetxeak, osasun-zentroak, espazio komunitarioak ...</li> </ul>
<p>Kultura eta Berdintasuneko Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adingabeen begirada genero-indarkeriaren barruan txertatzeak ekintza askoz gehiago egitea ahalbidetuko luke.</li> <li>• Garrantzitsua izango litzateke herritar guztientzat komuna den zerbait egitea eta, gainera, ekintzak zehaztea sektore zehatzagoen eskakizunen arabera, adibidez, irakaskuntzaren esparruan.</li> </ul>

**Laugarrena: Ez dago udal-alorren arteko koordinaziorik genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpainak programatzeko eta garatzeko orduan.**

<p>Gizarte Zerbitzuetako Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Horrelako kanpainak programatzeko orduan, Berdintasunak eta Gizarte Zerbitzuetako eta Komunitate Ekintzako Alorrak lidergo partekatua izan dezakete, baina alor anitzen arteko lana egin behar dute nahitaez.</li> <li>• Indarkeriaren aurkako kanpainak planteatzeko orduan, alorren arteko koordinazioa egon beharko luke. Kontua ez da bonbardaketa gehiegi egitea mezu desberdinekin, mezu bakoitzari denbora eskaintzea baizik herritarrengan eragina izateko. Batzuetan, kanpainak bikoiztu egiten dira edo, alor batek kanpaina bat planteatzen duenean, beste batzuk hasita daude eta elkar zapaltzen dute.</li> </ul>
<p>Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Egiten diren kanpainak EULZren ekimenez egiten dira, Berdintasunarekin koordinatu gabe. Ekintzaren bat egin da elkarrekin Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunaren Funtsekin, baina ez dago urteko koordinaziorik.</li> <li>• Unean uneko jarduerak antolatzen dira erakunderen batek eskatzen badu, baina jarduera horiek ez dira kanpainak.</li> </ul>
<p>Kultura eta Berdintasuneko Alorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasunak genero-indarkeriaren aurkako kanpainak egiten ditu, Nafarroako Gobernuako berdintasun-teknikarien sarearekin koordinatuta, baina ez dago kanpainetarako koordinaziorik Udaleko beste alor batzuekin.</li> </ul>

## 6.5. ELKARRIZKETAK ELKARTE-EHUNARI

# Lunes Lilas

## Elkarrizketa Magali Rodríguez Moyari, Lunes Lilas Elkarteko kideari

Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek lagundu eta, ondorioz, haiekin harreman zuzena duen elkartearekin, ezinbestekotzat jo dugu haiek ere parte hartzea aurrerako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketa-prozesu honetan. Indarkeriaren biktimak diren emakumeek adingabeei arreta emateko zerbitzuen/baliabideen inguruan duten pertzepzioari buruz duten ikuspegia hurbilago egon daiteke emakume horien eta beren seme-alaben errealitatekin.

*Elkarrekin lagun egiten al die genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek, edo haien alde lan egiten al du? Eta haien kargura dauden adingabeen alde?*

MRM: Bai, lagun egiten diegu indarkeriaren biktimak diren emakumeek, baina ez haien seme-alabei. Beti hitz egiten dugu amekin baina, egia esan, adingabeak bigarren mailan geratzen dira. Baina haiekin lan egin behar da laguntzeko; izan ere, adingabeak daudenean eta indarkeria dagoenean, eskolan ezer ez kontatzeko esateko joera izaten dugu etxean.

*Zertan egiten diezue lagun?*

MRM: Salaketak jartzeko eta edozein motatako izapideak egiteko. Ez ditugu erakundeak ordezkatzeko, eta ez dugu esaten zer egin behar duten. Entzun eta laguntza eskaintzen diegu, nora joan behar duten jakin dezaten: EULZ, EAZ, DBLB...

Batzuetan, gurekin harremanetan jartzen dira Delituen Biktimen Laguntzarako Bulegoan (DBLB) aholkatzen dietelako. Autodefentsa feministako ikastaroak edo beste prestakuntza batzuk bilatzen dituzte edo, besterik gabe, hitz egiteko eta zalantzak galdetzeko deitzen digute.

Lehenik eta behin, zer egin nahi duten galdetzen diegu eta, hortik aurrera, gidatu egin ditzaiegu eta informazioa eman diezaiekegu, baina ez diegu inoiz esaten zer egin behar duten. Badakite polizia-etxean salaketa jar dezaketela, baina guregana jotzen dute, batzuetan ez direlako ausartzen pauso hori ematen. Guk dauden baliabideei buruzko informazioa ematen diegu, eta zer urrats egin erabakitzen dute haiek.

Aholkularitza juridikoa, gizarte-larrialdietarako laguntzak, bizileku-paperak edo haurdunaldia etetea behar dutenean nora jo behar duten esaten diegu. Gure esperientzian oinarrituta lagundu diezaiekegun guztian laguntzen diegu.

*Emakumeek udal-arretako zerbitzu edo baliabideren batera jotzeko aholkatzen al diezue? EULZ, HFTak...*

MRM: Bai, batez ere EULZra joatea aholkatzen diegu, emakumeak zuzenean artatzen dituztelako. Gero, EULZn beste zerbitzu batzuetara bideratzen dituzte edo seme-alabak artatzeko zer zerbitzuetara joan behar duten esaten diete.

*Ohikoa al dute zerbitzu horiek erabiltzea?*

MRM: Bai, EULZ eta beste zerbitzu batzuk erabiltzen dituzte, guk jarraipena egiten diegulako eta zer moduz dihoakien galdetzeko deitzen diegulako.

Zerbitzuetatik hitzorduetarako ematen dizkieten epeez kezkatzen dira. Guk esaten diegu hitzordua kasuaren urgentziaren arabera izango dela eta, horregatik, arreta eskatzen dutenean azaldu behar dutela zenbaterainoko premia duten. Batzuetan motelak dira, baina profesional handiak daude administrazioan.

*Seme-alabekin bizirik irauten duten amek zer premia adierazten dituzte adingabe horiek artatzeko?*

MRM: Uste dute beren seme-alabek premia berezia dutela ikastetxean, eta irakasleek agian ez dutela premia hori ulertzen. Lagunduko dien figura psikologiko baten falta sumatzen dute. Guk esaten diegu, ikastetxean ez badute kontatzen etxeko egoera zein den, ezin dietela lagundu,

**Bizirik irauten duten amek uste dute beren seme-alabek irakasleek agian ulertzen ez duten premia berezia dutela ikastetxean. Lagunduko dien figura psikologiko baten falta sumatzen dute, baina ikastetxean ez badute kontaktzen etxeko egoera zein den, ezin diete lagundu, ez dutelako edo berandu detektatuko dutelako.**

**Sentsibilizazio-kanpaina eta -ekintzen presentzia orokor bihurtu beharko litzateke. Dударik gabe, adingabeak dauden gunee guztietan (eskolak, kiroldegia, ludotekak, osasun-zentroak). Genero-ikuspegiak espazio guztietan eta profesional-talde guztietan egon behar du: gizarte-langileak, epaitegiak, osasuna...**

ez dutelako detektatuko edo berandu detektatuko dutela.

Arazoa da beldur handia diotela estigmari; uste dute egoera jakin bezain laster, ikastetxeak eta ikaskideek umea estigmatizatuko dutela. Ume horiek hitz egiteko beldurra ere badute, tratu txarrak ematen dituztenek oso argi uzten baitute etxean zer esan daitekeen eta zer ez. Neska batek bere amari honako hau esan zion nire aurrean, nik zerbait galdetu nionean: "Ama, gogoratu gure etxeko gauzei buruz ez dugula hitz egiten".

***Bizirik irauten duten emakumeek edo zuek lagun egiten diezuenean, sumatzen al duzue figura profesionalen baten falta genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuetan kalitate handiagoa emateko behar diren taldeetan?***

MRM: Ikastetxean lagun egiteko figuraz gain, adingabeak artatzen dituen pertsonak haiekin enpatia izatearen falta sumatzen dute. Umearekin izaten den lehen kontaktua funtsezkoa da, izan ere, artatzen dituen psikologoa lehen egunean gustatzen ez bazaie, ez dute itzuli nahiko. Esku-hartzea lehen egunean konektatzen duten moduaren baitan egongo da.

***Hiriko elkarte-ehuneko partaide gisa, beharrezkoa iruditzen al zaizu herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta adingabeen aurkako genero-indarkeriari buruz?***

MRM: Bai, sentsibilizazio-lan asko dago egiteko. Dena den, uste dut asko aurreratu dugula eta Nafarroan gauza asko ditugula beste erkidego askotan ez dituztenak, oraindik gauza asko geratzen diren arren.

***Zer ekintza-mota egiten dituzue Lunes Lilas elkartearen?***

MRM: Hileroko lehen asteleheneko kontzentrazioez gain, autodefentsa feministako ikastaroak egiten ditugu amentzat eta neskentzat, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeentzat...

Lunes Lilasen, Lola Rodríguez psikologo eta margolariaren laguntza dugu, umeentzako arte-terapiako ikastaroak egiten dituen: *Pintura para sanar y conocer mis emociones*, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin tailerrak ere egiten ditu. Horiekin hainbat erakusketa egin dira.

***Non izango litzateke lehenetsuneko sentsibilizazio-lana egitea?***

MRM: Uste dut sentsibilizazio-kanpaina eta -ekintzen presentzia orokor bihurtu beharko litzatekeela. Dударik gabe, adingabeak dauden gunee guztietan (eskolak, kiroldegia, ludotekak, osasun-zentroak). Genero-ikuspegiak espazio guztietan eta profesional-talde guztietan egon behar du: gizarte-langileak, epaitegiak, osasuna...

***Amaitzeko, nahitaezkoa iruditzen al zaizu diagnostikoan islatzea?***

MRM: Beharrezkoa da adingabeak genero-indarkeriaren biktima gisa ikusaraztea eta guztioi eragiten digun gizarte-arazoa dela kontzientziatzea. Eta ez, niri gertatzen ez zaidan bezala, ezer ez axola izatea.

Nire ustez, hobetzeko proposamen gisa, ludotekak jarri beharko lirateke egoera horretan dauden umeak etxean denbora gutxiago egon daitezten. Etxean egoten dira ez dutelako nora joan. Nahitaezkoa da neska-mutilentzako aisiari eta denbora libreari erreparatzea. Adingabeek egoteko lekuren bat badute, denbora gutxiago egongo dira etxean tratu txarren emaitzarekin.

# Ondorioen laburpena

Beren amen aurka eragindako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeekiko esku-hartzearen egungo errealitateari buruzko ikerketa garatzeko, hurbilketa kuantitatibo eta kualitatibo batetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako udal-arretarako baliabideak eta haur eta familiekin lan egiten duten gizarte-zerbitzuetako udal-taldeak aztertu dira. Arreta handiz aztertu dira esku hartzeko eta koordinatzeko prozesuak, bai eta baliabide edo zerbitzu bakoitzean artatutako kasuen datuak nola biltzen eta partekatzen diren ere.

Informazioa lortzeko, funtsezko informazio-iturrietara jo da, hala nola arreta-baliabide horietako bakoitzean egunero lan egiten duten profesionalengana. Gainera, kontuan hartu dira bigarren mailako beste iturri batzuen ekarpena eta esperientzia, ikerketa akademikoarekin edo emakumeekin eta/edo adingabeekin lotutako udal-alorrekin zerikusia dutenena, baina emakumeekin eta/edo adingabeekin zuzenean esku hartzen ez dutenena.

Inketa eta elkarrizketa pertsonalak eta ateratako ondorioak aztertu ondoren, atal honetan horien laburpen labur bat sartuko dugu, jarraian ondorio horiekin bat datozen hobekuntza-proposamenak ezartzeko.

## 7.1. IKERKETAREN ONDORIOEN LABURPENEA

### 1. helburua:

Ez dago adingabeengan genero-indarkeria detektatzeko prozedurarik, ezta haien amengan eragindako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeei arreta espezializatua emateko protokolorik ere.

Talde guztientzako protokolo komun bat ezarri behar da, amek jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko zer datu jaso behar diren eta nola jaso behar diren zehazteko.

Taldeek beharrezkotzat jotzen dute datu-base komun bat izatea amek jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko informazio guztia biltzeko.

Sistematizaziorik eza emakumei eta adingabeei arreta emateko udal-zerbitzu edo -baliabideen arteko koordinazioan.

### 2. helburua:

Talde guztiek beharrezkotzat jotzen dute adingabeengan eta genero-indarkerian espezialistak diren profesionalak sartzea.

Elkarrizketatutako profesionalak uste dute nahitaezkoa dela, beste gauza batzuen artean, beren taldeetan adingabeen gaineko genero-indarkeriari buruzko prestakuntza egotea.



### 3. helburua:

Ez dago amek jasandako indarkeriagatik arriskuan dauden adingabeak kontuan hartzen dituen genero-indarkeriaren aurkako kanpainarik.

Elkarrizketatutako profesional guztien iritziz, funtsezkoa da herritarrek genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzea.

Ezinbestekoa da emakumeekin eta adingabeekin lan egiten duten eta esku hartzen duten profesional guztiak sentsibilizatzea eta kontzientziaztea.

Garrantzitsua da udal-alorren arteko koordinazioa ezartzea genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpainak programatzeko eta garatzeko orduan.

## 7.2. INKESTA ETA ELKARRIZKETA PERTSONALETAN AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

Atal honetan, inkestetan eta elkarrizketa pertsonaletan jasotako proposamen guztiak sartuko ditugu, ez bakarrik emakumeekin eta adingabeekin zuzenean esku hartzen duten pertsonenak, baita ikerketa honetan parte hartu duten profesional guztienak ere. Esperientzia pertsonaletik eta profesionaletik datorrelako duen balioagatik eta diagnostiko hau eta Ekintza Planaren edukiak hobetzeko proposamenak ezartzean duen garrantziagatik, hitzez hitz transkribatuko ditugu, iritzi eta ekarpen guztiak jasota gera daitezen.

### Inkesta eta elkarrizketa pertsonaletan aurkeztutako proposamenak

Gizarte  
Zerbitzuetako  
Alorra

- Herritarrek sentsibilizatzeko premia, profesionalak eta prozedurak egoera horietan prestatzea eta psikologiako figurak egotea.
- Oro har, faltan sumatzen dira genero-ikuspegia txertatuko duten prestakuntza eta orientazioa esku-hartze profesionaletan. Garrantzitsua izango litzateke kultura-aniztasuna aintzat hartzea ere.
- Nahitaezkoak dira gaitze profesional espezializatua egitea eta herritarrek sentsibilizatzea kanpaina sendo baten bitartez.
- Genero-indarkeriak adingabeengan dituen ondorioei buruzko eta familietan ongizatea hobetzeko esku hartzeko moduari buruzko prestakuntza espezifikoa.
- Asko gustatuko litzaidake etxean egoera horiek bizi dituzten adingabeekin nola lan egin behar den jakitea. Etorkizuneko indarkeriaren hazia izan daitezkeen zenbait jarrera matxistarekin nerabe eta gazteen artean tolerantzia handiagoa dagoela ikusteak ere kezkatu egiten nau. Oso garrantzitsua da prebentzioa lantzea musikaren bidez eta telebista-saio jakin batzuen bidez zabaltzen diren zenbait mezuren normalizazioaren aurrean.
- Datu-bilketarako planteatzen den edozein tresna ez dadila geratu zifra soiletan. Lanez leporaino gaude eta ez dugu behar datuak bildu eta haiekin ezer ez egiteagatik frustrazioa gehituko digun ezer. Eskerrik asko.
- Genero-indarkeriari buruzko informazioa eta jarduerak ahalik eta ondoen biltzeko oinarriak jartzeko sor daitezkeen prestakuntza guztia funtsezkoa da esku-hartze on baterako.
- Prestakuntza: nola joratu indarkeriaren gaia neskak eta mutilak jolasten ari direnean edo elkarrizketa batean. Praktikoagoa izan behar du, horrenbeste teoria eman gabe. Garrantzitsua da adin goiztiarretan detektatzea. 3 urtetik 12 urtera bitartean aplika daiteke.
- Amaren eta seme-alaben arteko lotura eta atxikimendua lantzeko prestakuntza.
- Dauden tresnak erabiltzea eta horiei bira ematea: Zer ekarpen egin dezakegu?
- Nola hobetuko dugu arreta?
- Kanpaina partekatuak diseinatu beharko lirateke.
- Aitatasun positiboko kanpaina. Gizarte Zerbitzuetako Alorrak eta Gazteria Alorrak, auzo-sarearekin batera, prestakuntzaren zirriborro bat egin eta familiekin hitz egiten dute, diseinatutako prestakuntza ondo iruditzen zaien jakiteko. Ezin gara umeekin lanean hasi, Skolaek egiten duelako, baina bai familiekin, eta hori oso garrantzitsua da. Beharrezkoa da gurasoek laguntza eskatu ahal izatea eta nolabaiteko sentsibilizazioa izatea.
- Ikerketa: Udalak gauzak argitaratzera ausartu behar du, ikasten duena irakastera. Ezagutzaren kudeaketa egin behar da, egiten dugunak zentzua duela ikus dadin norabide jakin batean doalako. Horrek aldaketa politikoetatik babesten du.
- Protokoloak ezartzea, unibertsitatearekin hitzarmenak egitea, ikertzen duten enpresak... Entitateen eta administrazioaren arteko lankidetzeta. Badirudi arlo sozialean hori ez dela egin behar, baina funtsezkoa da.
- Neska-mutilak detektatzeko eta babes-teko tresnak ere hobetu egin behar dira, batez ere genero-indarkeriari dagokionez.
- Prestakuntza eta gogoeta gidatuko guneak lankideekin, esparru desberdinetatik, honako hauek partekatzeke: zer egiten ari garen, nola ari garen, premiak identifikatzen laguntzeko. Indarkeria-mota hori ikusteko, betaurrekoak jarri behar ditugu. Espezialistok prestatuta egon beharko genuke behar bezala artatzeko. Hemendik proposamen askoz interesgarriagoak aterako dira. Dena oso banatuta dago: adingabeak, emakumeak...
- Eremu judiziala gizarte-zerbitzuetara hurbiltzea. Oso urrun gaude eta, seguruenik, antzeko premiak ditugu.
- Oso berde gaude genero-indarkeriako egoeretan, eta beste kasu batzuetarako jarraibideak ematen ditugu (hezakuntza-baliabideak), indarkeria-kasu horietarako balio ez dutenak.
- Kasuen dimentsioa edo magnitudea balioesteko erregistro-sistema.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren adingabeen artean, zer tipologia edo profil dauden erregistratzea (adibidez, adinaren arabera).
- Memoretan genero-indarkeriaren biktimak diren adingabeen gorabehera sartzeta. Jakin badakigu adingabeak ere biktimak direla, baina, erregistrorik ez dagoenez, ez da bistaritzen.
- Beharbada ez da beharrezkoa dauden prozedura-ereduak aldatzea, baina genero-indarkeriaren biktimak diren adingabeen kasu horiek kontuan hartzen dituzten aldagaiak sar daitezke.



Inkesta eta elkarrizketa pertsonaletan aurkeztutako proposamenak				
Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzua (EULZ)	<ul style="list-style-type: none"> <li>EULZtik egiten dugun esku-hartzean adingabeak nola sartu programatzea. Gabeziak badaude, beharrezkoa da arreta-figura programatzea, jarduketak programatzea. Garrantzitsuagoak dira figura profesionalak adingabeak artatzeko gidak egitea baino. Hori egiteko baliabide</li> </ul>	<p>materialak eta giza baliabideak ematen dituen apustu politikoa egon behar du.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Adingabeentzako arreta psikologikoa zabaltea, baina arreta hori egonkorra izatea eta ez aldatzea funtsen arabera.</li> <li>Agian, haur-taldeak arreta hori ematen ari zaizkie adingabeei baina guk ez dakigu</li> </ul>	<p>koordinaziorik ez dagoelako. Eremu erki-de bat sortuko bagenu, jarduketa hauek nola koordinatu behar diren ezarri beharko litzateke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Konfinamenduan zehar, guretzat funtsezkoa izan da telefono bidezko arreta emakume biktimak sostengatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dugu beharrezkotzat jotzen kontziliazio-zerbitzu batzuk ezartzea zerbitzuan, esaterako ludotekak; izan ere, normaltasun-aldietan, goizetan haurrak eskolara joaten direla eta guk arreta ematen dugula kontuan hartuta, emakumeak lasaiago etor daitezke.</li> </ul>
Kultura eta Berdintasuneko Alorra	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza beharko litzateke adingabeen eskubideen, dagokien araudiaren eta dagozkien eskubideen esparruan. Kontua da profesional guztiak oinarrizko gaikuntza izatea indarkeria-egoerak detektatzeko, adingabe horiekin esku hartzeko jakineko figura bat badago ere.</li> <li>Haur-planen, haur-eskolen eta abarren arteko koordinazioa hobetu beharko</li> </ul>	<p>litzateke, eta Berdintasunarekin koordinatu. Alor bakoitzerako koordinazio-egitura espezifikoa sortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Adingabeak genero-indarkeriaren biktima gisa sartzak urratsak eman beharko litzuzke sensibilizazioan eta ikusgarritasunean. Sensibilizazioak arau-aldaketak ere eragiten ditu: eraldaketa sortzea,</li> </ul>	<p>bai arau-esparruan, bai administrazio publikoan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>EULZrekin koordinazioa indartzeko premia dago, eta baliozko elementu bat egitura egonkor bat izan daiteke. Egitura horretan, 4 sektoreek lan egingo dute urte osoan indarkeriari modu koordinatuan heltzeko: mugimendu feminista, EULZ, Herriarren Segurtasuna eta Berdintasuna</li> </ul>	<p>("Sanferminak Berdintasunean" proiektuaren ondorioz).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sensibilizazio-kanpainetarako, herritar guztientzako bat egin liteke eta gero jakineko sektoreen eskakizunetan zehaztu, esate baterako, irakaskuntza-esparruan. Auzo-kanpaina txikiak ere egin daitezke, herri edo auzo bakoitzaren errealitatearekin bat datozenak.</li> </ul>
NUPEko irakasle ikertzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>Baliabideak eman behar dira genero-indarkeriaren biktima diren haurrek aisiatu izan dituzaten, tarte horiek estalita egon daitezten.</li> <li>Adingabeei ahotsa eman behar zaie, eta horretan saiatzen ginen proiektuan haurren psikologoarekin: haien nahiak jasotzen, zer egin nahiko luketen, zer imajinatzen duten eta haientzat dibertigarria</li> </ul>	<p>zer den jakiten, haiei entzuten eta beren eskubideak kontuan hartzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte-zerbitzuekin, lehen mailako arretarekin edo adingabeen babesarekin zerikusia duen esparruan, profesionalen prestakuntzaren premia handia dago, genero-indarkeriako egoeran dauden adingabeen sufrimendua interpretatu eta testuinguruan jarri ahal izateko eta</li> </ul>	<p>esku-hartze egokia egin ahal izateko. Neska-mutil horien premiak modu osoagoan eta harmonikoagoan artatu behar dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ezinbestekoa da psikologoaren figura adingabeekin esku hartzeko, generoari eta genero-indarkeriari buruz dakiena. Baita laguntza pedagogikoaren figura eta harrera-baliabideetan adingabeen</li> </ul>	<p>denbora libre eta aisia dinamizatuko dituen pertsonaren figura ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Biktima adingabeak egon daitezke, nola baiteko sintomatologia agertzen delako, portaera jakin batzuk agertzen direlako... Identifikazio-tresnak izatea da kontua, eta gaiari nola heldu jakitea. Funtsezkoa iruditzen zait hezkuntza-esparruan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan detektatzea.</li> </ul>
Elkarte-ehuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bizirik irauten duten emakumeek lagunduko dien figura psikologiko baten falta sumatzen dute. Beren seme-alabek, askotan, premia berezia izaten dute ikastetxean, eta baliteke irakasleek premia hori ez ulertzea. Beldurra diote estigmari; eta hitz egiteko beldurra dute, tratu txarrak ematen dituztenek oso argi uzten dutelako etxean zer esan daitekeen eta zer ez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haur horiek enpatia-premia dute: haurrarekin izaten den lehen harremana funtsezkoa da, artatzen dituen psikologoa ez bazaie gustatzen, ez baitute itzuli nahiko. Garrantzitsua da nola konektatzen duten.</li> <li>Sensibilizazio-kanpaina eta -ekintzen presentzia orokor bihurtu beharko litzateke. Dударik gabe, adingabeak dauden</li> </ul>	<p>gune guztietan (eskolak, kiroldegiak, ludotekak, osasun-zentroak). Genero-ikuspegiak espazio guztietan eta profesional-talde guztietan egon behar du: gizarte-langileak, epaitegiak, osasuna...</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Beharrezkoa da adingabeak genero-indarkeriaren biktima gisa ikusaraztea eta guztioi eragiten digun gizarte-arazoa dela kontzientziaztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hobetzeko proposamen gisa, ludotekak jarri beharko lirateke egoera horretan dauden umeak etxean denbora gutxiago egon daitezten. Nahitaezkoa da neska-mutilentzako aisiari eta denbora libreari erreparatzea. Adingabeek egoteko lekuren bat badute, denbora gutxiago egongo dira etxean tratu txarren emailearekin.</li> </ul>



# Hobetzeko proposamenak

Hobekuntza-proposamenak azalduko ditugu, ikerketan planteatutako helburuen arabera eta diagnostikotik ateratako ondorioen arabera. Proposamen horiek guztiak 10 – Ekintza Plana puntuan jasotako ekintzetan daude garatuta.

Garrantzitsua da aipatzea, ikerketa honetan planteatutako helburu orokorrek aintzat hartzen ez duten arren genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako prestakuntza, diagnostikoan jasotako informazioa aztertu ondoren, funtsezkotzat jotzen dugula emakume horiek hobekuntza-proposamenetan eta Ekintza Planeko - 3. helburuaren garapenean (96. orrialdea) sartzea.

**1. helburua: Genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurunean dauden adingabeen egoerari buruzko informazioa eta datuen eskuragarritasuna identifikatzea, eta politika publikoak zehazteko behar diren datuak eta informazioa izatea ahalbidetuko duten neurri zuzentzaileak proposatzea.**

## **1. Informazioa biltzeko sistema bateratuak martxan jartzea**

Ikerketa honek agerian utzi du ez dagoela informaziorik genero-indarkeriaren biktima diren edo izan diren haur-taldeetan artatutako adingabeei buruz. Ukaezina da indarkeria horiei aurre egiteak esku-hartze oro egitean kontuan hartu behar diren efektu eta ondorioak dituela adingabeengan.

Lehenik eta behin, identifikatu egin behar da Haurren eta Familiaren Taldeetan eta EULZn artatutako zer emakume diren genero-indarkeriaren biktima, zer indarkeria-mota jasan duten, seme-alabarik duten eta zer erasan-maila jasaten duten adingabe horiek amek jasandako indarkeriaren ondorioz.

Elkarrizketatutako talde guztiek informazio hori erregistratzeko premia identifikatzen dute. Funtsezkoa da esku-hartzea partekatzen duten edo esku-hartze integrala egiteko koordinatu beharko liratekeen talde guztiek informazio hori modu homogeen biltzea eta erraz eskuratzeko modukoa izatea.

Informazioa biltzeko, dauden datu-baseak berrikusi eta egokitu behar dira, adingabeen eta haien amen indarkeria-egoerari buruzko informazioa erregistratzeko. Era berean, garrantzitsua da datu-base horiek bateratzea, talde guztiei sarbidea errazteko eta koordinazioa hobetzeko.

## **2. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzeko zerbitzuen edo taldeen arteko koordinazio-prozedurak ezartzea.**

Esku-hartzeko prozesuak hobetzeko, koordinazio-mekanismoa sartzea gomendatzen da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzen dituzten edo artatu ditzaketen baliabide desberdinen artean.

## 2. helburua: Profesionalen espezializazio-maila eta erantzun instituzionalerako gaitasuna identifikatzea, beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz beren familia-ingurunean arrisku-egoeran dauden adingabeekin esku hartzeko eta arrisku hori hautemateko, eta profesionalen prestakuntza eta detektatzeko eta esku hartzeko gaitasuna hobetzeko neurriak proposatzea.

### 1. Taldeetan figura profesionalak dibertsifikatzea

Indarkeria jasaten duten adingabeei arreta egokia emateko, beharrezkoa da talde desberdinetan figura profesional jakin batzuk sartzea. Horrela, esku-hartzea modu egokian egin ahal izango da, behar adina giza baliabiderekin eta emakumeek eta horien seme-alabek jasaten dituzten indarkeria-egoerak kontuan hartuta.

- Haurrengan eta genero-indarkerian aditua den psikologoa. Gutxienez, prestakuntza hori duen figura profesional bat Haurren eta Familien Taldeetarako (HFT), kasuak HNLTra bideratzea saihesten duten esku-hartzeak egin ahal izateko, eta beste profesional bat Gizarte Arazoak dituzten Haurrendako Laguntza Talderako (HNL), esku-hartzea ziurtatzeko (balorazioa baino ez dago ziurtatuta).
- Gizarte-hezitzailea adingabeen gizarte- eta hezkuntza-alderdiak lantzeko, bai auzo-unitateetan, bai HNLtn. Figura profesional hori ikastetxeetan ere egon daiteke, adingabeei buruzko informazioa zuzenean jaso ahal izateko.
- HNL taldeari bere lanaren garapenean sortzen diren alderdi legal eta juridiko guztietan babesa ematen dion abokatua, gatazka judizializatuak dauden kasuetan esku hartzen duena.

### 2. Taldeetako profesionalen prestakuntza zabaltzea

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeekin kalitatezko esku-hartzea egiteko, ezinbestekoa da taldeak gutxienez bi alderditan prestatzea:

- Gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuneko prestakuntza.
- Genero-indarkeriako prestakuntza.

Modu sistematizatuan ezarri behar dira genero-berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloko prestakuntzaren egiaztapena eta ezinbestekotzat jotzen diren prestakuntza-orduak.

### 3. Genero-ikuspegia txertatzea adingabeekin egiten diren esku-hartze profesionalean

Beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioari zeharkotasuna ematea, gauzatzen diren esku-hartzeko tresna, prozedura eta prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatzeko. Horren ondorioz, genero-berdintasunaren ikuspegia jarduera guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan txertatuko da.

## 3. helburua: Herritarrak sentsibilizatzeko beharrak identifikatzea eta estrategiak definitzea, adingabeek jasaten dituzten indarkeria-mota guztiak ezagutu eta prebenitu ahal izateko.

Azterlan honetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko hainbat iritzi eta premia jaso dira, eta talde guztietan esplizituki adierazi dira. Atal honetan modu orokorrean aurkezten dira eta Ekintza Planean zehazten dira (101. orrialdea).

### 1. Herritarrak kontzientziatzeko eta prestatzeko ekintzak

### 2. Emakume biktimekin zuzenean esku hartzeko ekintzak.

### 3. Gizonak sentsibilizatzeko eta haiengan aldaketak eragiteko ekintzak.

# Ekintza-plana

Ikerketa honek berekin dakar informazioa biltzea eta Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetako profesionalak genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku-hartzearen arloan erabilitako prozedura aztertzea. Diagnostikoa egin eta hobetzeko proposamenak planteatu ondoren, Ekintza Plana aurkezten dugu.

Diagnostiko honek hobetu daitezkeen eta eraldatzeko jarduketa profesional eta eraginkor programatua behar duten esku-hartzeko nukleoak adierazten ditu, ekintza espezifikoak sortuz horretarako.

Honako hauek dira hobekuntza-ekintzak planteatzen dituzten lau blokeak:

- Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen datuak biltzeko, detektatzeko, bideratzeko eta kasuak orientatzeko dauden tresnak.
- Adingabeekin esku hartzeko protokolo eta jarduketa-gida komunak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza.
- Herritarrak sentsibilizatzea genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekiko indarkeriari buruz.

## 9.1. EKINTZA-PLANAREN HELBURUAK

- Datuak biltzeko, detektatzeko, orientatzeko eta kasuak bideratzeko sistema eraginkor bat garatzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta emakumeei arreta espezializatua emateko taldeetan dauden premien arabera.
- Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako jardueragida edo -protokolo bat sortzea eta garatzea epe ertain-luzera.
- Epe labur-ertainean prestakuntza-plan bat garatzea genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, bai eta Iruñeko Udaleko arreta-zerbitzuetan artatu diren indarkeriaren biktima diren emakumeentzat ere.
- Epe labur-ertainean herritarrak sentsibilizatzeke plan bat garatzea, emakumeen eta haien seme-alaben aurkako genero-indarkeria prebenitzeko.

### 1. HELBURUA:

**Datuak biltzeko, detektatzeko, orientatzeko eta kasuak bideratzeko sistema eraginkor bat garatzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta emakumeei arreta espezializatua emateko taldeetan dauden premien arabera.**

**Helburuen justifikazioa:**

Azken urte hauetan, emakumeen aurkako indarkeriaren arazoarekiko sentsibilizazioari esker, biktima diren emakumeen seme-alaben premia ugari antzeman dira, indarkeria hori zuzenean pairatzen duten pertsonak diren aldetik.

Arazoaren tamainak eta larritasunak errealitate horri berariaz heltzea eskatzen dute. Arazo soziala eta osasun publikokoa da eta, horregatik, beharrezkoa

da testuinguruan kokatzea, erregistratzea eta kuantifikatzea. Horretarako, datuak biltzeko tresna egokiak sortu behar dira (edo dauden tresnak egokitu), bai eta analisi estatistikoak, dokumentuak eta protokoloak ere, kasu bakoitzaren diagnostikoa eta gizarte- eta hezkuntza-arloa errazteko.

**Helburu espezifikoak eta ekintzak:**

1. helburua: Datuak biltzeko, detektatzeko, orientatzeko eta kasuak bideratzeko sistema eraginkor bat garatzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei eta emakumeei arreta espezializatua emateko taldeetan dauden premien arabera.	
Helburu espezifikoak	Ekintzak
1.1. Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko baliabideetan dauden tresnak egokitzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei (haiei eta/edo haien amei eragindakoa) buruzko datuak modu espezifikoan jasotzeko.	Datuak biltzeko dauden tresnak aztertzea eta egokitzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuen erregistro bat sartzeko. Dauden tresnak aztertzea eta egokitzea, genero-indarkeriak adingabeengan duen eragina neurtzeko.
1.2. Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak eta emakumeak artatzen dituzten zerbitzuen arteko koordinazio- eta bideratze-mekanismoak formalki ezartzea.	Koordinatzeko prozedura sistematizatua egitea, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzeko talde guztientzat.
1.3. Genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak arreta espezializatuko baliabideetatik bideratzeko eta orientatzeko esku-hartzeko jarraibideak homogeneizatzea.	Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten taldeek artatutako kasuekin jarduteko prozedurak berrikustea eta egokitzea.

**2. HELBURUA:**  
**Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako jarduera-gida edo -protokolo bat sortzea eta garatzea epe ertain-luzera.**

**Helburuen justifikazioa:**

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin eta haien seme-alabekin egiten den esku-hartzeko prozesuan zehar, hezkuntza-arloko hainbat profesionalak eta estilok parte hartzen dute. Horregatik, onuragarria iruditzen zaigu, dokumentu erraz eta deskribatzaile baten bidez arreta espezializatuko taldeek garatutako

iritziak, ezagutzak, esperientziak eta praktikak bateratzea, eta hurrekiko tratu onetan oinarritutako esku-hartzeko eredu bakar bat sortzea, genero-indarkeriari heltzeko ikuspegi integral bat jasoko duena, batez ere adingabeei eragindakoa.

Profesionalentzako gida bat sortzea lagungarria izango litzateke adingabeek jasaten duten genero-indarkeriaren kontzeptualizazioari heltzeko, indarkeria horren zuzeneko biktima gisa. Bai eta haren eskubideen, dagoen araudiaren, eskura dauden baliabideen eta esku-hartzearen kontzeptualizazioari ere. Baita talde profesionaleri kalitatezko esku-hartzeko lortzeko gomendioak emateko ere.

Hurrek jasaten duten indarkeriaren errealitatearen ezagutza eta detekzio goiztiarra eta prebentzioa susta dezaketen praktikak errazteko ezinbestekoa den informazioa biltzea da helburua.

## Helburu espezifikoak eta ekintzak:

2. helburua: Genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako jardueraren gida edo -protokolo bat sortzea eta garatzea epe ertain-luzera.	
Helburu espezifikoak	Ekintzak
2.1. Genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeekin esku hartzen duten profesionalak zuzendutako lan- eta kontsulta-tresna bat izatea, informazioa, baliabideak eta erantzun profesionalak sistematizatzen laguntzeko tresna gisa.	<p>Genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin esku hartzeko gida bat sortzea. Gidak genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin premien kontzeptualizazioa eta arau-esparrua, haiekin jarduteko modua eta haiei eman beharreko arreta jaso behar ditu. Gida hau egiteko, funtsezkoa da metodo parte-hartzaile bat ezartzea adingabeekin zuzenean lan egiten duten profesionalekin.</p> <p>Genero-indarkeriaren biktimaren adingabeei zuzendutako ipuin gida bat egitea, esku-hartze psiko-hezitailerako tresna gisa, beren egoera eta beren amena genero-indarkeriaren prozesuaren barruan ulertzen laguntzeko.</p>
2.2. Genero-indarkeriaren biktimaren emakumeen seme-alabak genero-indarkeriaren biktimaren zuzen gisa ikusaraztea.	
2.3. Genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin babesteko sistemaren barruan jarduteko modua ezartzea.	
2.4. Esku-hartze integralerako jarraibideak ezartzea, genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin artatzen dituzten profesional guztientzat.	

### 3. HELBURUA:

**Epe labur-ertainean prestakuntza-plan bat garatzea genero-indarkeriaren biktimaren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, bai eta Iruñeko Udaleko arreta-zerbitzuetan artatu diren indarkeriaren biktimaren emakumeentzat ere.**

#### Helburuen justifikazioa:

Genero-indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen larriena da, eta horrexegatik erabiltzen da emakumeen aurka.

Oro har, emakume horiei zuzendutako esku-hartzeak haien errehabilitazio fisikoan, psikologikoan eta emozionalean oinarritzen dira, baina bigarren mailan uzten du amaren eta seme-alaben arteko loturaren errehabilitazioa, askotan jasandako genero-indarkeriak kaltetua.

Adingabeekin esku hartzeak lotura hori indartu eta konpondu behar du, hezkuntza-jarraibideen bidez. Tratu txarrak ematen dituzten gurasoen indarkeriazko portaerek zuzenean eragiten diete seme-alabei, haurren eta nerabeen garapen bio-psiko-sozialean eragiten dutelako.

*Atxikimendua haurren eta gurasoen artean ezartzen den lotura da, hazkuntzarako lehenik sentsoriala den harreman-prozesu baten bidez (usainen pertzepzioa, ahotsa, ukimena...). Familia askotan, ordea, ez da gertatzen harreman-prozesu hori, eta horrek finkatuko du, gerora, amaren eta seme edo alabaren arteko atxikimenduaren kalitatea. (Barudi. Tratu Onaren Teoria).*

Garrantzitsua da bermatzea indarkeria-kasu horiek artatzen dituzten profesionalak prebentzioa, detekzio goiztiarra, laguntza eta biktimen arreta ahalbidetuko dien prestakuntza dutela.

Horretan guztian oinarrituta, norabide bikoitzeko prestakuntza-plana planteatzen dugu, profesionalentzat eta genero-indarkeriaren biktimaren emakumeentzat (ikusitako prestakuntza-taula), honako helburu hauekin:

## Helburu espezifikoak eta ekintzak:

3. helburua: Epe labur-ertainean prestakuntza-plan bat garatzea genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, bai eta Iruñeko Udaleko arreta-zerbitzuetan artatu diren indarkeriaren biktima diren emakumeentzat ere.	
Helburu espezifikoak	Ekintzak
3.1. Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko taldeetako (EULZ, HFT eta HNL) profesionalekin genero-indarkeriaren kasuak detektatzearekin lotutako prestakuntza espezifikoa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionalentzako prestakuntza-ekintza: Genero-indarkeriaren adierazpen guztiak identifikatzeko tailerra. Emakumeen eta gizonen artean dagoen generoan oinarritutako egiturazko desberdintasuna eta desberdintasun hori genero-indarkeriaren kausa nagusietako bat dela ulertzeko eta horri buruz hausnartzeko oinarritzko kontzeptuak lantzeko gune bat da. Gune horretatik, genero-indarkeria eta haren adierazpenak kontzeptualizatzea erraztuko da, bai eta indarkeria iraunarazten duten kausak ere, eta horrek indarkeria goiz detektatzea eta prebenitzea erraztuko du. Halaber, tailer horrek aukera emango du adingabeak genero-indarkeriaren biktima zuzen gisa ikusarazteko.</li> <li>Profesionalentzako prestakuntza-ekintza: Genero-indarkeriaren detekzio goiztiarra. Genero-indarkeriaren berezko "seinaleak" identifikatzen ikastea da helburua.</li> </ul>
3.2. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeekin harreman zuzena duten Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetako profesionalekin genero-indarkeriaren biktima diren hauren garapen psiko-sentsorial-motorrekin lotutako prestakuntza egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionalentzako prestakuntza-ekintza: Genero-indarkeriak garapen psiko-sentsorial-motorrean duen eraginari eta horrek ikaskuntzan, emozioen arloan eta jokabidearen arloan dituen ondorioei buruzko tailerra. Beldurra eta garunaren garapenean duen eragina.</li> </ul>
3.3. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeekin harreman zuzena duten Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetako profesionalekin atxikimenduari eta lotura-erlazioari buruzko prestakuntza egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionalentzako prestakuntza-ekintza: Atxikimendua eta trauma genero-indarkeriari dagokionez. Atxikimenduari eta lotura-harremanari buruzko prestakuntza, eta genero-indarkeriarekiko esposizioaren gertaera traumatikoak adingabeen garapenean nola eragiten duen.</li> </ul>
3.4. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adingabeekin harreman zuzena duten Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetako profesionalekin genero-indarkeriaren biktima diren hauren aurkako indarkeriari eta tratu txarrei aurre egiteko tresna alternatiboekin zerikusia duen prestakuntza egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Profesionalentzako prestakuntza-ekintza: Ipuin-terapiako tailerra tresna psikohezitzaie gisa. Ipuinak nola erabili tresna hezitzaile gisa genero-indarkeriaren biktima diren haurrekin lan egiteko orduan.</li> </ul>
3.5. Genero-indarkeriatik (seme-alabekin edo gabe) bizirik atera diren emakumeekin, Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetan artatutakoekin, genero-indarkeria identifikatzearekin lotutako prestakuntza egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei zuzendutako prestakuntza-ekintza: Ahalduntzeko eta autodefentsa feministako tailerra. Emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiborako teknika kognitibo, emozional eta fisikoetan oinarritutako tresna da. Edozein adinetako emakumeentzako da. Tailer honek indarkeria edozein adierazpidetan identifikatzen laguntzen du, eta indarkeria hautematea eta prebenitzea ahalbidetzen du. Indarkeria sexistaren aurka sensibilizatzeke, prebenitzeko eta jarduteko beharrezko tresna da.</li> </ul>
3.6. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin, Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetan artatutakoekin, genero-indarkeriak seme-alabengan eragiten dituen ondorioei buruzko prestakuntza espezifikoa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren emakumei zuzendutako prestakuntza-ekintza: Genero-indarkeriaren biktima diren amei eta seme-alabei bizipenetan eta emozioetan laguntzeko tailerra.</li> </ul>



3. helburua: Epe labur-ertainean prestakuntza-plan bat garatzea genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzat, bai eta Iruñeko Udaleko arreta-zerbitzuetan artatu diren indarkeriaren biktima diren emakumeentzat ere.	
Helburu espezifikokoak	Ekintzak
3.7. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin, Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetan artatutakoekin, amen eta seme-alaben arteko lotura berrezartzearekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoa egitea. Ama-rola garatzea eta atxikimendu-loturak konpontzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako prestakuntza-ekintza: Ama-rola garatu ahal izateko tresna pertsonalak eskuratzea lantzen duen heziketa-zikloa. Helburua da espazio egonkor eta seguru bat sortzea, amatasunean laguntzeko, atxikimendu-loturak sendotzeko edo konpontzeko hainbat dinamikaren bidez, jolasa, zaintza eta kontaktu fisikoa sustatzeko eta aitasun positiboa lantzeko.</li> </ul>
3.8. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin, Iruñeko Udaleko arreta espezializatuko zerbitzuetan artatutakoekin, amaren eta seme-alaben arteko lotura berrezartzen laguntzen duten tresnekin zerikusia duen prestakuntza espezifikoa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzendutako prestakuntza-ekintza: Hezkuntza-tresna alternatiboen tailerra: ipuin-terapia, gorputz-mugimendua eta komunikazio positiboko jolasak. Amek modu positiboan erlazionatzeko eta amaren eta seme-alaben arteko lotura sendotzeko hezkuntza-tresnak ezagutzeko datza.</li> </ul>

Prestakuntza-plana		
ARRETA ESPEZIALIZATUKO PROFESIONALAK	I BLOKEA: GENERO-INDARKERIAKO KASUEN DETEKZIO GOIZTIARRA	<ul style="list-style-type: none"> <li>PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:</li> <li>Genero-indarkeriaren adierazpen guztiak identifikatzea.</li> <li>Genero-indarkeriaren detekzio goiztiarra.</li> </ul>
	II BLOKEA: GENERO-INDARKERIAK GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEENGAN DUEN ERAGINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:</li> <li>Genero-indarkeriak garapen psiko-sentsorial-motorrean duen eragina.</li> <li>Atxikimendua eta trauma genero-indarkeriari dagokionez.</li> </ul>
	III BLOKEA: GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEEI GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOAN AURRE EGITEA ETA ESKU HARTZEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:</li> <li>Ipuin-terapia tresna psikohezitzaie gisa.</li> </ul>
GENERO-INDARKERIAREN ONDOREN BIZIRIK IRAUN DUTEN EMAKUMEAK	I BLOKEA: INDARKERIA DETEKTATZEKO SEINALEAK.	<ul style="list-style-type: none"> <li>PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:</li> <li>Autodefentsa eta ahalduntze feminista.</li> </ul>
	II BLOKEA: GENERO-INDARKERIAREN ONDORIOAK ADINGABEENGAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>PRESTAKUNTZA-EKINTZAK:</li> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren amei eta seme-alabei bizipenetan eta emozioetan laguntzea.</li> </ul>
	III BLOKEA: AMAREN ETA SEME-ALABEN ARTEKO LOTURA BERREZARTZEN LAGUNTZEN DUTEN TRESNA HEZITZAILEAK.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ama-rola garatu ahal izateko tresna pertsonalak eskuratzeko heziketa-zikloa.</li> <li>Ipuin-terapia, gorputz-mugimendua eta komunikazio positiboko jolasak.</li> </ul>

#### 4. HELBURUA:

#### Epe labur-ertainean herritarrak sentsibilizatzeko plan bat garatzea, emakumeen eta haien seme-alaben aurkako genero-indarkeria prebenitzeko.

##### Helburuen justifikazioa:

Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak, I. tituluan, sentsibilizazio-, prebentzio- eta detekzio-neurriak ezartzen ditu, Genero Indarkeriari buruz Sentsibilizatzeko eta Prebenitzeko Plan Nazionala egiteko. Plan horrek "gizartearen agertokian oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean oinarritutako balio-eskala berriak txertatuko ditu, bai eta tolerantzia eta askatasuna bizikidetzaren printzipio demokratikoen barruan gauzatzean oinarritutakoak ere, eta hori guztia genero-ikuspegitik".

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeak ere, Prebentzioa eta sentsibilizazioa izeneko III. tituluan, xedetzat ezartzen du, alde batetik, hezkuntzaren esparruan prebentzioa helburu duten neurriak hartzea eta, bestetik, sentsibilizazio- eta informazio-neurriak abian jartzea. Gizarte-sentsibilizazioa eta informazioa ere lantzen ditu, prestakuntza-kanpainen eta -ekintzen bidez.

Bestalde, honako hau da Nafarroako emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko koordinaziorako erakunde arteko III. Akordioaren helburua: emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta tratamendu integralean parte hartzen duten erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren lortzeaz gain, ikerketaren, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez prebentzio-lana bultzatzea eta indartzea.

Azken urteotan, funtsezko helburutzat jo dira genero-indarkeriaren eta haurren aurkako tratatu txarren problematika herritarrengana hurbiltzea, gertakari horren aurrean banakako eta taldeko sentsibilitatea sustatzea, eta horrekin zerikusia duten eragile guztiak, batez ere administrazio eta botere publikoak, benetan inplikatzeko beharra aldarrikatzea.

Horretan guztian oinarrituta, helburu hau planteatu da Ekintza Planaren barruan, herritarrak sentsibilizatzeko plan baten garapenarekin lotuta.

##### Helburu espezifikoak eta ekintzak:

#### 4. helburua: Epe labur-ertainean herritarrak sentsibilizatzeko plan bat garatzea, emakumeen eta haien seme-alaben aurkako genero-indarkeria prebenitzeko.

Helburu espezifikoak	Ekintzak
4.1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeenganako indarkeria ikusaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarrizketak komunikabideetan, hiriko elkarte-ehun feministako genero-indarkerian adituak diren profesionalekin.</li> </ul>
4.2. Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeenganako indarkeria ikusaraztea.	<ul style="list-style-type: none"> <li><i>Monstruos S.A.</i> erakusketa. Haurrek genero-indarkeria irudikatzen moduari buruz egindako marrazkien erakusketa. Erakusketak braillez idatzitako azalpen-liburuxka bat izango du, eta zeinu-hizkuntzan egindako ikus-entzunezko publizitatea ere.</li> <li>Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak pertsonaia publiko esanguratsuekin eta karteekin ikusarazteko kanpaina.</li> <li><i>Genero-indarkeria identifikatzeko eta adingabeak ikusarazteko</i> tailerra. Herritarrentzako tailerra, genero-indarkeriaren detekzio goiztiarra eta prebentzioa lantzeko. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> </ul>


**4. helburua: Epe labur-ertainean herritarrak sentsibilizatzeko plan bat garatzea, emakumeen eta haien seme-alaben aurkako genero-indarkeria prebenitzeko.**

Helburu espezifikoak	Ekintzak
<p>4.3. Genero-indarkeriaren sentsibilizazioarekin eta prebentzioarekin lotutako jardueren programazioa garatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero indarkeriaren biktima diren adingabeekin lotutako sorkuntza egin nahi duten tokiko artisten erakusketa solidarioa (ilustrazioa, pintura, eskultura, argazkigintza, etab.). Erakusketak braillez idatzitako azalpen-liburuxka bat izango du, eta zeinu-hizkuntzan egindako ikus-entzunezko publizitatea ere.</li> <li>• 3 Zineforumeko mini zikloa, haurretan eta genero-indarkerian espezializatutako profesionalekin gogoeta egiteko tartea duena. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• <i>Tratu Onak</i> tailerra, herritar guztientzat eta Aitatasun Positiboko Eskolentzat. Tailer honetan haurren zaintza eta tratu onak landuko dira eszenetan oinarritutako psikoterapia integratzailea (EOPI) erabiliz. Metodologia hori arte eszenikoetatik eta psikologiatik elikatzen da, hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzura jartzeko. EOPI metodologiak partaidetza- eta bizipen-enkoadraketa errazten du, eta hausnarketarako lagungarria den espazio bat sustatzen du, hainbat teknika erabiliz: dramatizazioa, talde-sorkuntzak, talde-dinamikak, rol-jokoak, emozioen komunikazioa eta adierazpena, bai eta inprobisazioaren eta bat-batekotasunaren erabilera ere. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• <i>Haurren eskubideak ipuin-terapiaren bidez</i> tailerra. Tailerra, herritar guztientzat eta Aitatasun Positiboko Eskolentzat. Tailer honetan haurren eskubideak eta haiekiko indarkeria-mota ohikoenak landuko dira, genero-indarkeria, tratu txarrak, sexu-abusua eta bulliying-a prebenitzen lagunduko diguten berriazko ipuinen bidez. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• <i>Nola identifikatu genero-indarkeria gure alabengan</i> tailerra. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• <i>Gure seme-alabak tratu onean hezten</i> tailerra. Haurrengan portaera matxistak eta indarkeriazkoak prebenitzea. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• Ahalduntzeko eta Autodefentsa feministako tailerra. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> <li>• Sozializazio berezituari eta genero-aginduei buruzko prestakuntza-tailerra, gizonen zuzendua, balio eta identitate maskulino berriak ikasteko eta emakumeen eta haien seme-alaben aurkako indarkeria kontzeptualizatu eta identifikatzeko. Tailerra eskatuz gero, zeinu-hizkuntzan egindako itzulpena ere sartuko da.</li> </ul>
<p>4.4. Herritarrei informazioa emateko zerbitzu bat sortzea, haurren aurkako tratu txarrekin lotua, edozein pertsonak kontsulta ditzan adingabeen aurkako indarkeria-mota ororekin lotutako zalantzak (genero-indarkeria, sexu-abusuak, tratu txar fisikoak, psikologikoak).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Esteka birtual bat sortzea Iruñeko Udalaren webgunearen bidez, adingabeen aurkako indarkeriarekin lotutako zalantzak eta egoerak modu anonimoan planteatzeko.</li> </ul>

## 9.2. CRONOGRAMA

Jarduera	Ekintza-plana		
	Epe laburra, 1 eta 3 hilabete artean	Epe ertaina, 3 eta 6 hilabete artean	Epe luzea, 6 eta 12 hilabete artean
<b>I. HELBURUA: Datuak biltzeko, detektatzeko, orientatzeko eta kasuak bideratzeko sistema eraginkor bat garatzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeek beren amekiko dituzten premien arabera.</b>			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuak erregistratzeko dauden tresnak aztertzea.			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuak erregistratzeko dauden tresnak egokitzea.			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen kasuak koordinatzeko eta bideratzeko jarduera-prozedura berrikustea.			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen bideratutako kasuen jarduera-prozedura berrikustea.			
<b>II. HELBURUA: Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako jarduera-gida edo -protokolo bat garatzea epe ertain-luzera.</b>			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku hartzeko gida bat sortzea.			
Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei zuzendutako ipuin gida bat egitea.			
<b>III. HELBURUA: Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza-plan bat garatzea epe ertain-luzera.</b>			
Prestakuntza-ekintza profesionalentzat, genero-indarkeriaren adierazpen guztiak identifikatzearekin lotua.			
Prestakuntza-ekintza profesionalentzat, genero-indarkeriak garapen sensorial-motorrean duen eraginarekin lotua. Beldurra eta garunaren garapenean duen eragina.			
Prestakuntza-ekintza profesionalentzat, atxikimendurekin eta genero-indarkeriaren bizipenaren ondoriozko traumarekin lotua.			
Prestakuntza-ekintza profesionalentzat, ipuin-terapia tresna psikohezitzaile gisa erabiltzearekin lotua.			
Prestakuntza-ekintza emakumeentzat, ahalduntze eta autodefentsa feministarekin lotua.			
Prestakuntza-ekintza genero-indarkeriaren biktima diren amentzat, genero-indarkeriaren biktima diren amei eta seme-alabei bizipen-eta emozio-laguntza ematearekin lotua.			
Heziketa zikloa genero-indarkeriaren biktima diren amentzat, ama-rola garatu ahal izateko tresna pertsonalak eskuratzearekin lotua.			
Prestakuntza-ekintza genero-indarkeriaren biktima diren amentzat, tresna hezitzaile alternatiboekin lotua: ipuinak, gorputz-mugimendua eta komunikazio positiboko jolasak.			

Jarduera	Ekintza-plana		
	Epe laburra, 1 eta 3 hilabete artean	Epe ertaina, 3 eta 6 hilabete artean	Epe luzea, 6 eta 12 hilabete artean
<b>IV. HELBURUA: Epe ertain-laburrean, adingabeen indarkeriari buruz Herritarrak Sentsibilizatzeko Plan bat garatzea.</b>			
"Monstruos S.A" marrazki-erakusketa			
Adingabeak genero-indarkerian ikusarazteko kanpaina			
Irratiko elkarrizketak adingabeetan eta genero-indarkerian adituak diren pertsonen			
Herritarrentzat kontsultarako esteka birtual bat sortzea, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin zerikusia duena			
Tokiko artisten erakusketa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lotua			
Zineforumeko 3 saioko mini zikloa, genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin lotua			
Tratu onei buruzko tailerra, herritarrentzat eta Aitatasun Positiboko Eskolentzat.			
Haurren eskubideei buruzko tailerra ipuin-terapiaren bidez			
"Nola identifikatu genero-indarkeria gure alabengan" herritarrentzako tailerra.			
"Gure seme-alabak tratu onean hezten" tailerra.			
Ahalduntzeko eta autodefentsa feministarako tailerra, herritarrentzat.			
"Nola identifikatu genero-indarkeria eta adingabeak ikusarazi" herritarrentzako tailerra.			
Maskulinitasun berriei buruzko prestakuntza-tailerra.			



# Beste esperientzia batzuk genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin

## 1. FAMILIAK, GIZARTE-BAZTERKETA ETA SEGURTASUN GUNEA PROGRAMA (FSEPS)

Nafarroako Unibertsitate Publikoak garatutako programa, Nafarroako Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin lankidetzan, Europako Batzordearen "Eskubideak, Berdintasuna eta Herritarrak, 2017" Deialdiaren barruan.

NUPEko taldea:

- Patricia Amigot Leache.
- Sara Gordillo Sierra.
- Ruth Iturbide Rodrigo.
- Rubén Lasheras Ruiz.
- Txema Uribe Oyarbide.
- Izaskun Andueza Imirizaldu (koor).

Proiektuaren deskribapena:

- Proiektu honetan, diagnostiko bat egin da emakumeek eta haien seme-alabek harrera-baliabideetan eta genero-indarkeriako egoeretan (profesionalen ikuspegia barne) duten aisialdiarekin lotutako premiei, aukerei eta nahiei buruz.

- Amentzako eta haurrentzako "Gure unea" aisialdi-programa prestatzea. Programa hori Iruñeko Udaleko eta Nafarroako Gobernuko harrera-baliabideetako profesionalekin egindako bi saiotan egokitu zen.
- Diagnostikoa profesionaleri itzultzea eta haiekin lankidetzan aritzea, programa baliabideen ezaugarrietara egokitzeko.
- 2020ko uztailean eta abuztuan programa pilotua garatzea, DUO programan (Iruñeko Udala) eta Harrera- Etxean (NABI).

Proiektu honen ezaugarriak eta ezarpen-prozesua ezagutzeko, Patricia Amigot Leache psikologo eta Psikologia Sozialeko doktoreak eta NUPEko irakasle eta iker-tzaileek parte hartu dute. Honako hauek dira ondorio nagusiak:

*Hainbat herrialdek parte hartzen dute proiektuan, Ingalaterrako unibertsitate bat buru dutela. Harrera-baliabideetan indarkeriaren biktima diren haurrentzat ikuspegi egokirik ez dagoela egiaztatetik abiatzen da proiektua. European desberdintasun handia dago baliabide horien diseinuan. Esate baterako, Ingalaterran kontuan hartzen dituzte indarkeriaren biktima diren adingabe horiek, beren susperraldiari eta ongizateari ekiteko. Espainian, aldiz, adingabeen arretari dagokionez, desadostasun handia dago protokolo eta kanaletan, eta ez dakigu nolakoak diren adingabeen indarkeria-prozesuak.*

*NUPEk aisialdian eta denbora librean zentratu du proiektua. Gabezia horrek emakumei eta indarkeriaren biktima diren adingabeei eragiten die, eta orain arte bigarren mailakotzat jo da.*

*Diagnostikoa egiteko, elkarrizketak egin zitzaizkien profil desberdineko emakumei, bai Iruñeko Udaleko baliabideei dagokionez, bai Nafarroako Gobernuakoei dagokionez. Indarkeria-egoeran dauden adingabeekin esku hartzen espezializatutako psikologo batekin ere lan egin zen, behar edo desio jakin batzuk detektatzeko eta haien ahotsa entzuteko, amekin eta hurrekin aldi berean lan egiteko programa bat diseinatzeko helburuarekin.*

Programa harrera-baliabideetan zentratuta dago. Beraz, indarkeria-egoera oso larrietan eta konplikazioak sortzen dituztenetan, bizitegi-baliabideak direlako.

Proiektua 2020ko uztailean egin zen, NABIren (Nafarroako Gobernu) harrera-baliabidean eta, abuztuan, Iruñeko Udalaren DUO "Eman zeure buruari aukera bat" programan gauzatzen ari da. Adingabeen adina 5 eta 12 urte bitartekoa da.

Nagusiki familia-nukleoan garatu beharreko jarduerak dira: ama eta seme-alabak. Hiru pertsona arduratzen dira taldeez aldi berean. Esku-hartzearen 5 eremu hauetan egiten dituzte jarduerak:

- Gizarteratzea.
- Komunikazioa eta errespetua.
- Konfiantza eraikitzea.
- Emozioak kudeatzea.
- Etorbizun positiboak.

Amak jasandako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketa-proiektuari dagokionez, Patricia Amigotek diagnostikoan jaso ditugun gaietako batzuk aipatu zizkigun:

- Harrera-baliabideetako profesionalen **prestakuntzari edo gaikuntzari** dagokionez, FSEPS proiektuak giza baliabideen eta baliabide materialen premia oso argia hauteman zuen.

*Profesionalek langile-premiak planteatzen dituzte adingabeengan beharrezkoak diren alderdi guztiei erantzuteko, hala nola eskolatzea, laguntza pedagogikoa, itzulpen-zerbitzua, kontziliazioa,... Eta adingabeekin esku hartzeko*

*prestakuntza jasotzeko eta ama eta seme-alaben arteko harremaneko egoera zailak kudeatzeko.*

Patricia Amigotek adierazi du garrantzitsua izango litzatekeela hausnarketarako guneak sortzea, informazio edo prestakuntza zehatzak emateko baino gehiago esku-hartze instituzionalaren praktika zehatzei eusten dieten inplizituak desmuntatzeko.

- Harrera-baliabideetako taldeetan jakineko **figura profesionalak** izateko premiari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen du adingabeekin esku hartzeko figura psikologikoa izatea, lehen mailako arretako taldeetan gertatzen den bezala. *Generoan eta genero-indarkerian espezializatutako pertsona izan behar du.* Garrantzitsutzat jotzen ditu laguntza pedagogikoaren figura eta harrera-baliabideetan adingabeen denbora libre eta aisia dinamizatutako dituen pertsonaren figura ere.
- Herritarren **sentsibilizazioari** dagokionez, uste du bi maila daudela: *Genero-indarkeriari buruz termino sozialetan nola pentsatzen dugun erakusten duen iruditeria partekatua; izan ere, iruditeria horretan umeak ez dira agertzen, ikusezin bihurtzen dira eta, ondorioz, ezinbestekoa da genero-indarkeriaren biktima gisa bistartzea; bestea, jakineko esparruetan, hezkuntza-esparruko sentsibilizazioak duen garrantzia izango litzateke, ume guztiak dauden espazioa baita. Kontua da identifikatzeko tresnak izatea eta indarkeria horri nola heldu jakitea. Funtsezkoa da, halaber, osasun-zentroek eta gizarte-zerbitzuek detektatzea ere.*

Diagnostikorako iruzkin pertsonalak:

- "FSEPS proiektua oso lotuta dago baliabide jakin bati, eta lotuta dago aisialdiaren eta denbora librearen esparruarekin, baliabide horietan dauden pertsonen beste eskubide bat baita. Adingabeek eskubidea dute kalitatezko aisialdia izateko eta jasandako indarkeria guztia konpondu ahal izateko".
- Gizarte-zerbitzuekin, lehen mailako arretarekin edo adingabeen babesarekin zerikusia duen esparruan, profesionalen prestakuntzaren premia handia dago, genero-indarkeriako egoeran dauden adingabeen sufrimendua interpretatu eta testuinguruan jarri ahal izateko eta esku-hartze egokia gauzatu ahal izateko.

Neska-mutil horien premiak modu osoagoan artatu behar dira. Ume horientzat funtsezkoa da aisia: jolastea, gozatzea, lagunak egitea. Harrera-baliabideetan



sartzen direnean, askotan eskolatik edo lagunartetik ateratzen dira, batzuetan atzerapenak izaten dituzte eskolan, beste batzuetan ez dute hizkuntza menderatzen eta, gainera, indarkeria-egoeraren zama guztiarekin etortzen dira. Hori ez da seriotasunez hartu, eta erakundeek ez dute kontuan hartu.

DUO programan, profesionalak guztiz miresgarriak dira. Inplikazio handia dute haurrei aisialdiko uneak izaten laguntzeko eta, askotan, beren denbora libre hartzen dute lagun egiteko. Ez luke horrela izan behar, baliabide gehiago egon beharko luke premia hori estalita edukitzeko.

Adingabeei ahotsa eman behar zaie, eta saiakera hori egin da proiektu honetan haurren psikologoarekin: haien nahiak jasotzen, zer egin nahiko luketen, zer imajinatzen duten eta haientzat dibertigarria zer den jakiten, haiei entzuten eta beren eskubideak kontuan hartzen”.

## 2. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEEKIN ESKU-HARTZEKO GIDA

**Kanarietako Berdintasun Erakundea. Genero Indarkeriaren aurkako Sistema Integrala Koordinatzeko Zerbitzua**

Dokumentuaren arabera, “Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeekin esku hartzeko gida” genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta adingabeak artatzen lan egiten duten profesionalak orientatzeko premiatik sortu da. Arreta espezializatuko taldeetan garatutako esperientzien emaitza da.

Umeentzako tratu onean oinarritutako esku-hartzeko eredu bat da. Gainera, eredu horrek ikuspegi integrala eskatzen du genero-indarkeriari heltzeko, eta genero-ikuspegia sartzen du emakumeekin ama gisa ahalduentzeko egindako esku-hartzearen zeharkako ardatz gisa, emakume bakoitzak genero-indarkeriaren biktima gisa dituen ondorioei heltzeko egindako esku-hartze psikologikoarekin batera.

Honako hauek dira gidaren helburuak:

- Genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeekin esku hartu behar duten profesionalen zuzendutako lan- eta kontsulta-tresna bat izatea, informazioa, baliabideak eta erantzun profesionalak sistematizatzen laguntzeko tresna gisa.
- Genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeentzako arreta integralaren arloan esku hartzeko jarraibide metodologikoak ezartzea, arlo horretan espezializatutako gizarte-arretako baliabideetatik.

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak genero-indarkeriaren biktima zuzen gisa ikusaraztea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeen eskubideen gaineko araudia eta alderdi juridikoak.
- Genero-indarkeriaren biktima diren adingabeak eta emakumeak detektatzeko, orientatzeko eta bideratzeko tresnak ematea.

## 3. HAURREN AURKAKO TRATU TXARRAK PREBENITZEKO ELKARTEEN FEDERAZIOA (FAPMI)

**Haurren aurkako Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkartearen Federazioa (FAPMI)**

“Haur eta nerabeen tratu txarren eta sexu-esplotazioaren prebentziorako elkartuta” lelopean, Espainiako EFAPMI-ECPAT erakundeak jarduera-multzo zabal bat garatu du, haurren aurkako edozein indarkeria-mota barne hartzen duena, eta herritarrekin, profesionalekin, administrazioekin, entitateekin eta erakundeekin lankidetzaz-espazioak sortzeko, haurren tratu txarrak prebenitzera eta haurrei tratu ona ematera bideratutako estrategia eraginkorrago gisa.

Haurren aurkako Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkartearen Federazioa (FAPMI), 1990ean sortua, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta adingabeen eskubideen defentsarekin sentsibilizatutako pertsonak eta elkarteak biltzen ditu. Haurren eta nerabeen tratu ona sustatzen ahalegintzen dira.

Honako hauek dira Federazioa osatzen duten erakundeak:

- Tratu Txarrak jasandako Haurrentzako Kataluniako Elkarteak (ACIM).
- Haurren Defentsarako eta Haurren aurkako Tratu Txarren Prebentziorako Andaluziako Elkarteak (ADIMA).
- Tratu Txarrak jasandako Haurrei Laguntzeko Murziako Elkarteak (AMAIM).
- Haur eta Gazteen Defentsarako Gaztela-Leongo Elkarteak (REA).
- Haurrak Artatu eta Zaintzeko Asturiasko Elkarteak (ASACI).
- Tratu Txarrak jasandako Haurrei Laguntzeko Euskal Elkarteak (ACIM).
- Sexu Erasoen Biktimei eta Tratu Txarrak jasandako Haurrei Laguntzeko Elkarteak (CAVAS Kantabria).
- Abusuak jasandako Haurrei Laguntzeko Sarea (RANA Balearrak).

- Abusuen aurkako eta Haurren Tratu Txarren aurkako Galiziako Elkarte (AMINO. Gal).
- Errioxako Haurren aldeko Elkarte (APIR).

Horien jarduerak haur eta gazteen arretarekin eta bere testuinguruarekin zerkusia duten arlo hauetan zentratzen dira:

- Haurrak babestea.
- Haur eta nerabeen aurkako tratu txarrak prebenitzea.
- Haurren tratu ona sustatzea.
- Haurren eskubideak sustatzea.

Federazioak eta haren kide diren erakundeek 200 prebentzio-, sentsibilizazio- eta/edo tratamendu-programa baino gehiago garatu dituzte toki-, autonomia-, estatu-, Europa- eta nazioarte-mailan, haur eta nerabeentzat, haien familientzat eta haien arretan parte hartzen duten esparru guztietako profesionalentzat zuzeneko onura dakartenak. Egindako jardueren artean, honako hauek nabarmendu behar dira: Tratu Txarrak jasandako Haurrei buruzko biurteko Estatuko Kongresua antolatzea, Haurren aurkako Tratu Txarrei buruz Sentsibilizatzeko eta horiek Prebenitzeko Estatuko Kanpainak koordinatzea, hainbat administrazioarekin lankidetzan, eta material espezifikokoak, gidak eta azterlanak argitaratzea.

Sentsibilizazio-jarduketak. Haurren aurkako Tratu Txarra Prebenitzeko Estatuko Kanpainak:

- “Nire ongizatea zure ardura da” izenpean, Haurren aurkako Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkarte Federazioa, 2006az geroztik, haur eta nerabeen aurkako tratu txarren inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak egiten ari da, herritar guztiei zuzenduta.
- “Tratu txarren aztarna” erakusketa, besteak beste, Psikologiako Noguerol zentroak eta Haurren aurkako Tratu txarrak Prebenitzeko Madrilgo Elkarteak (APIMM) egina.
- Haurren aurkako Tratu Txararen aurka Sentsibilizatzeko Kanpainak. 2008. urtea, “Zeri egiten dio min?” Kanpaina, kartelak argitaratuz, alboko sormena duten autobusak kontratatuz eta Internet bidez zabalduz.
- 2009an hasi zen III. Prebentzio Kanpaina, nagusiki gizarte-komunikabideei eta herritar guztiei zuzendua, webgunearen eta sare sozialen bidez,

Espainiako haurren aurkako tratu txarren errealitatea gehiago bistaratzeko eta profesionalak eta, oro har, herritarrek tratu txarren susmoak jakinaraztea sustatzeko helburuarekin.

- 2010. urtea, Haurren aurkako Tratu Txarren aurka Sentsibilizatzeko IV. Kanpaina “Nire ongizatea zure ardura” lelopean – “20 Proposamen Espainian aurren eta nerabeen arreta hobetzeko”.
- 2011. urtea, Haurren aurkako Tratu Txarren aurka Sentsibilizatzeko V. Kanpaina, “Nire ongizatea zure ardura da” “Ez zaude bakarrik, ez beldurrik izan. Ez zaude bakarrik, eten isiltasuna”, haur eta nerabeen aurkako sexu-abusua prebenitzea, detektatzea eta jakinaraztea sustatzea xede duena.

#### **4. AUTONO+ ETXEBIZITZA PROGRAMA EMANTZIPATZEKO**

##### **Ilundain-Haritz Berri Fundazioa**

Zauggarrtasun-egoeran dauden emakumeentzako programa, autonomia-etxebizitza batean gauzatzen dena. Emakume horiek bizipenak eta esperientziak partekatzen dituzte, maila pertsonalean zein sozialean garatzen laguntzen dietenak, beren trebetasun sozialak areagotuz eta auzoko baliabideak ezagutuz. Ikuspegi feminista du, ahalduntzekoa eta genero-indarkeria prebenitzekoa. Gainera, gizarte-hezitzaile baten laguntzarekin, genero-berdintasuna lantzen da eta ahalduntze-lana egiten da taldean, hainbat jardueraren bidez.

*Autono+ Programan* parte hartzen duten edo parte hartu duten gazte gehienak genero-indarkeriaren biktima izan dira (amek, beraiek edo biek jasandakoa). Gazte horiekin, kaltea konpontzen, komunitate- eta aisialdi-guneetan txertatzen eta sare publikoko hainbat baliabidetara bideratzen laguntzeko lana egiten da.

Genero-indarkeriarik jasan ez duten emakumeekin, indarkeria hori identifikatzen eta prebenitzen lan egiten da, hainbat tresna erabiliz, hala nola tailerrak, boluntarioak, etab.

Ezaugarri nagusiak:

- Xede-publikoa: gizarte-bazterkeria edo -zauggarrtasuna edo genero-indarkeria jasateko arriskuan eta autonomia-prozesuetan dauden emakume gazteak.
- Sarbidea: oinarritzko gizarte-zerbitzuen eta/edo auzo-unitateen bidez, Fundaziotik bertatik zein beste gizarte-erakunde batzuetatik bideratuta.

- Etxebizitza partekatuen programa hau emakume gazteentzako baliabide bat da, helduen bizitzak berekin dituen inplikazioak gainbegiratze-esparru batean praktikan jartzen dituena.
- Proiektuaren bidez, gela bat alokatu ahal izango da tutoretzapeko gazte ohiek edo arrisku-baldintzetan eta autonomia-prozesuan daudenek partekatutako etxebizitza batean.
- Batetik, pertsonala eta indibidualizatua eta, bestetik, taldekoa eta komunitarioa den jarraipenaren bidez, erraztu egin nahi da, pixkanaka-pixkanaka, emakume gazteak desinstituzionalizatzea eta gizartean erabat txertatzea.



# Eranskinak

## Beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz arriskuan dauden adingabeei buruzko ikerketarako inkesta

### Datu profesionalak

Bete datu hauek zure izena sartu gabe, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa betez.

1. Lan egiten duzun Udaleko arloa.
2. Lan egiten duzun zerbitzua/taldea.
3. Sexua.
4. Profil profesionala.
5. Antzintasuna lanpostuan.
6. Zure lanpostuarekin lotutako prestakuntza.

### Datuen tratamendua

Atal honen helburua da genero-indarkeria jasaten duten emakumeen familia-ingurunean dauden adingabeen egoerari buruzko informazioa eta datuen eskuragarritasuna identifikatzea. Horretarako, erantzun galdera hauei ahalik eta zehatzen, zure esperientziaren eta lanpostuaren eginkizunen arabera.

#### 7. Zein da zure interes-maila genero-indarkeria jasaten duten emakumeei buruzko datuak biltzeari dagokionez?

Markatu aukera bakarra.

- Guztiz beharrezkoa
- Handia
- Ertaina
- Txikia

#### 8. Ba al dago tresnarik genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeei buruzko datuak biltzeko?

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

9. Halakoak izanez gero, zehaztu zein.

10. Ba al dago tresnarik genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dituzten eta zure atalean sartzen diren familia-inguruneetatik datozen adingabeen kasuen hasierako diagnostikoa jasotzeko?

Markatu aukera bakarra.

- Bai  
 Ez

11. Halakoak izanez gero, zehaztu zein.

12. Ba al dago tresnarik genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeen kasuetan esku hartzeko prozesua jasotzen duenik?

Markatu aukera bakarra.

- Bai  
 Ez

13. Halakoak izanez gero, zehaztu zein.

14. Ba al dago tresnarik genero-indarkeria jasaten duten emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeen kasuen azken ebaluazioa jasotzeko?

Markatu aukera bakarra.

- Bai  
 Ez

15. Halakoak izanez gero, zehaztu zein.

16. Tresna horietakoren bat erabili ohi duzu? Zein?

17. Zein dira adingabeen kasuak zure zerbitzu edo ekipoa sartzeko bide nagusiak?

## Espezializazioa eta gaikuntza pertsonala

Atal honen helburua da profesionalen espezializazio-maila eta instituzioek erantzuteko duten gaitasuna identifikatzea, beren amen aurkako indarkeriaren ondorioz familia-ingurunean arrisku-egoeran dauden adingabeak detektatzeko eta haiei esku hartzeko. Horretarako, erantzun galdera hauei ahalik eta modurik zehatzenean, zure prestakuntza zure lanbide-eremuan edo kanpoan jaso duzun alde batera utzita.

20. Ba al duzu arlo horietakoren bati buruzko berariazko prestakuntzarik?

Hautatu dagozkion guztiak.

- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna  
 Emakumeen aurkako indarkeria  
 Arrisku-egoeran dauden adingabeak  
 Genero-indarkeria adingabeen artean  
 Adingabeen babesak  
 Esku-hartze sozioedukatiboa adingabeekin (trauma, atxikimendua eta lotura, nahasmendu emozionalak)

21. Ba al dakizu Gizarte Zerbitzuen Arloan prestakuntza-planik dagoen?

Markatu aukera bakarra.

- Bai  
 Ez

25. Zer prestakuntza-behar hautematen dituzu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak dituzten familia-inguruneetatik datozen adingabeekin esku hartzeko zure atalean/taldean?

## Herritarren sentsibilizazioa

Atal honen helburua da beharrak identifikatzea eta herritarrak sentsibilizatzeko estrategiak definitzea, adingabeek jasaten dituzten indarkeria mota guztiak prebenitzeko. Horretarako, erantzun galdera hauei ahalik eta zehatzen, gogoan dituzun gizarte-zerbitzuek adingabeen indarkeriaren prebenzioarekin lotuta egindako ekintza guztiak jasoz (kanpainak, jarduerak, komunikazioak, etab.).

26. *Atal/talde honetan egin al da herritarrak adingabeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzarik?*

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

27. *Zehaztu zeintzuk.*

28. *Zehazki, egin al da herritarrak sentsibilizatzeko ekintzarik, adingabeen artean genero-indarkeria prebenitzeko?*

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

29. *Zehaztu zeintzuk.*

30. *Gaur egun, ba al dago ildo horretan aurreikusitako ekintzen plangintzarik?*

Markatu aukera bakarra.

- Bai
- Ez

31. *Zehaztu zeintzuk.*

### **Ekarpen pertsonalak**

Idatzi hemen aurreko ataletan jaso ez den edozein proposamen (datu-bilketa, lanbide-prestakuntza eta -gaikuntza eta/edo herritarren sentsibilizazioa). Eskerrik asko zure laguntzagatik. Eskerrik asko.

32. *Ekarpenak.*





# Bibliografia

## 1. BIBLIOGRAFIA

*Intervención Con Menores Expuestos a la Violencia de Género. Guía para profesionales.* Ana maría Rosser Limiñana, Esther Villegas Castrillo, Raquel Suriá Martínez. Familia eta adingabeekin Esku hartzeko Ikerketa Taldea Alacanteko Unibertsitatea (IPSIFAM)

FRIEDBERG, R.D eta MCCLURE J.M (2005). *Práctica clínica de terapia cognitiva con niños y adolescentes. Conceptos esenciales.* Ediciones Paidós Ibérica: Bartzelona.

PÉREZ SOLER, C.CASTRO, M eta ALCÁNTARA, M. V (2012ko urria). *Propuestas para la intervención psicológica en menores expuestos a violencia de género.*

ROSSER, A., SURIA, R. eta VILLEGAS, E. (2012). Características de la intervención psicosocial de los menores acogidos en centros de acogida para mujeres víctimas de violencia de género. *Tratu txarrak jasandako Haurren IX. Nazioarteko Kongresua 2012ko urria.*

*Menores víctimas de violencia de género. Propuesta de intervención.* Francisca Lladrés Mendoza. Balearretako Unibertsitateko Psikologia Departamentua

*Los buenos tratos a la infancia.* Jorge Barudy eta Maryore Dantagnan. 2010eko urria.

*Las hijas e hijos de mujeres maltratadas: Consecuencias para su desarrollo e integración Escolar.* Espinosa, MA. Eusko Jaurlaritz 2006.

*Amor y violencia. La dimensión afectiva del maltrato.* Pepa Horno. 2009

*Apego y psicopatología: la ansiedad y su origen.* Manuel Hernández Pacheco. 2017

*Guía Práctica "Situaciones Traumáticas en la Infancia: Cómo afrontarlas".* Isabel Calonge. Madrilgo Psikologoen Elkargo Ofiziala eta Madrilgo Komunitateko Arartekoa, 2005

*Memoria de actividades.* Haurren aurkako Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkartearen Federazioa (FAPMI)

## 2. KONTSULTATUTAKO DOKUMENTAZIO INSTITUZIONALA

*Familiari, hurrei eta nerabeei laguntzeko II. Plana.* Nafarroako Gobernua. 2015/2019

*Haur eta Nerabeendako I. Udal Plana.* Iruñeko Udala. 2018-2022

*Haurren babesgabetasun egoeretan detekzioa, jakinarazpena, balorazioa eta esku-hartzea egiteko prozeduraren II. Eskuliburua*

*Txosten exekutiboa. Nafarroako harrera baliabideen, emakumeei laguntza emateko zerbitzuaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko laguntza ekonomikoen irismenaren eta kalitatearen ebaluazioa.* Sara Ibarrola. Nafarroako Gobernu

*Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arretari buruzko diagnostikoa.* Save the Children. Eusko Jaurlaritza 2014.

*Guía de intervención con menores víctimas de violencia de género.* Kanarietako Gobernu Kanarietako Berdintasun Erakundea.

*Andalucía detecta. Impacto de la Exposición a Violencia de Género a Menores.* Emakumearen Andaluziako Erakundea. Berdintasunerako eta Gizarte Ongizaterako Kontseilaritza, Andaluziako Junta. 2011

*Familia-arloan genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei arreta emateko eskuliburua.* Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko Zuzendaritza eta Save the Children - Emakunde. Liliana Orijuela López, Antonio J. Perdices, Montserrat Plaza, María Tobar Belmar.

*Guía de actuación para la detección y el abordaje de la violencia de género desde el ámbito educativo.* Carlos San Martín Blanco, Ángela Carrera Camuesco. Berdintasunerako eta Emakumearen Zuzendaritza Nagusia Kantabriako Gobernu 2019

### 3. ESTADISTIKA-ITURRIAK

Nafarroako Estatistika Erakundea

Estatistikako Institutu Nazionala.

Instituto Navarra para la Igualdad - Nafarroako Berdintasuneko Institutua

Gobernuaren Ordezkaritza genero-indarkeriaren aurka

Emakumeendako Udal Laguntza Zerbitzuaren memoriak

Iruñeko Udalaren Estrategia Bulegoa - Iruñeko Udalaren Soziologia Zerbitzua

### 4. LOTUTAKO WEB-ORRIAK

[www.pamplona.es](http://www.pamplona.es)

[www.navarra.es](http://www.navarra.es)

[www.pelahorno.es](http://www.pelahorno.es)

[www.gobiernodecanarias.org/igualdad](http://www.gobiernodecanarias.org/igualdad)

[www.savethechildren.es](http://www.savethechildren.es)

[violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/home.htm](http://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras/home.htm)

[www.unicef.es/blog/violencia-infantil-una-realidad-demasiadas-veces-silenciada](http://www.unicef.es/blog/violencia-infantil-una-realidad-demasiadas-veces-silenciada)

[www.fapmi.es](http://www.fapmi.es)

[www.apir.es](http://www.apir.es)



